

Juan Tartas

**ARIMA PENITENTAREN
OKUPATIONE
DEBOTAK**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00542.htm>

ARIMA PENITENTAREN OKUPATIONE DEBOTAK
Orationia, Barura eta Amoina
Hirur Iriko launari,
Montirande deihatzen den laun Abadiari dedi-
katiak,
Iuan de Tartas, Arueko retoraz eginak.

A fructibus eorum cognoscetis eos. Mat. 7.

ORTHEZEN, IACQUES ROVYER
Erregeren Inprimazalia baitan
Ustularen 16.garrenian, 1672.

A MONSIEUR DE TROISVILLES,
Abbé de Montirandé.

Monsieur, le bon Dieu, qui est l'auteur de tout bien, m'ayant fait la grace de composer un petit livre, contenant trois belles, devotes et charmantes Princesses, qui sont l'Oraison, le Jeune et l'Aumosne, i'ay prins la liberté, il y a quelque temps, d'en offrir la dedicace a feu Monsieur le Comte de Troisvilles vostre pere qui me fit l'honneur de la recevoir fort agreablement; mais par malheur pour moy, en mesme temps, que l'impression de mon travail fut achevée dans la Ville d'Orthez, cét illustre Seigneur a fini ses jours en ce monde, au grand regret des tous ceux qui ont conneu sa valeur et ses vertus; cette perte á rendu mon esprit affligé d'une telle maniere que ie ne sçauois en faire l'expression, et mes trois pauvres filles ont resté sans patron et sans protecteur, et moy sans consolation, lors qu'elles esperoient triompher a l'ombre de leur Illustre Prince; ces trois orphelines sortent d'un Pere sans Mere, et croyent, MONSIEUR, que vous leur servirez de pere et de mere, si vostre Grandeur accorde á leur desolé pere, la grace de porter Vostre Nom a la teste de sa lettre dedicace.

Si je voulois faire son panegeriste je dirois á l'honneur de ce Seigneur, plus de louanges que mon livre nesçauroit contenir, il faut pourtant que ie fasse honneur, en passant à la verité publique. Ce genereux Seigneur, s'appelloit *Troisvilles*, en basque *Hirur Iria*, qui signifie en françois *Troisvilles*, qui est la capitale de sa Comté en Soule; n'y une, n'y deux, n'y trois, n'y quatre Villes ne sçcauroient assez dignement chanter les louanges de ce grand Heros: Saurmur, Pont de Sée, Saint lean d'Angely, Monheurt, Toneins, Bergerac, Clerac, Nerac, Saint Anthonin, Montauban, Montpellier, Navarreins, la Rochelle, Nantey, Lamote, en Lorraine, et Casal en Italie, serviront d'autant de trompettes pour publier à toute la posterité, par tous les endroits de Royaume la valeur et les services signalez que ce brave Seigneur a rendus a la Couronne aux despens de son sang, durant le Regne de Louis 13. surnommé le luste; plus de deux cents cinquante Villes, que ce Grand Monarche avait conquises contre Calvin et Luther, seront autant de fidelles tesmoins pour annoncer les beaux exploits de l'espée de nostre brave et incompa-

rable Troisvilles. Si nous voulions ouvrir le tombeau qui couvre ses os dans l'Eglise de Troisvilles, nous trouverions sur son corps autant de blesseures, et particulièrement, celle qui a flué longuement par une canule, receüés pour le service du ROY son Maistre, comme il avoit des cheveux sur sa teste; et si ce Grand Prince eust vescu un peu plus, nostre brave Troisvilles seroit mort Duc, Pair et Mareschal de France, avec le cordon bleu.

Je brise la dessus, parce que l'histoire, sur tout le livre intitulé «le petit Bassom Pierre» ont mieux parlé de luy dans leurs escrits que je ne siçauois faire dans ma lettre. Je quite la source pour parier de ses ruisseaux. Tout le monde sçait que Monsieur le Comte de Troisvilles vostre Frere se fit admirer par sa valeur, il y a quelque temps, dans les troups auxiliara que Louis 14. nostre invincible Monarque avoit envoyez a l'Empereur aux Frontieres de Poloigne et de Hongrie contre les Othomans, parmi lesquels il fut percé a iour d'un coup de mosquet, apres avoir tué de sa main trois de ses infidelles, qui le vouloient engloutir tout vif.

le ne dis rien de vous, MONSIEUR, qu'un seul petit mot, de peur de choquer vostre modestie; c'est que vous avez quitté les pompes de la Cour et les delires du sicle pour honorer dans vostre Abbayië la robe de Saint Pierre, qui est celle de IESUS CHRIST, qui possible vous appellera par les ordres et la providence aux premiers jours de vostre naissance; si vos merites sont reconeus et mes prieres exaucées, nous vous verrons exalté dans les plus hautes dignitez de Rome ou del'estat. Nous avons perdu l'Original, mais vous, MONSIEUR, qui estes son image parfait et le veritable successeur de son merite et de sa vertu, vous passerez en cette rencontre pour Original et pour un parfait image, vous conjurant avec un coeur plein d'amour et de respect à estre persuadé que je n'oublierais jamais dans mes sacrifices le repos de l'ame du deffunct, ny la santé et prosperité du vivant en qualité de
MONSIELTR.

Vostre tres-humble et tres-obeissant serviteur TARTAS Prestre et Curé d'Aroue.

D'Arouë ce 16. Juillet 1672.

IRAKURTZALIARI

Neure adeskidia, igaren urthian egin dut eta ezarri argira libruto bat euskaraz, zoiñen izena baita *Onsa Hilzeko Bidia* eta konprenitzen baititu onsa hilzeko moienak, han ageri den bezala. Geroz aurthen linkoaren aiutu saildiarekila batian egin dut eta nahi kanporat idoki bertze piezato bat, zoiñen handitarzuna oro zerraturik baitago esku bat paperen boluman. Han ikusiko duzu hirur prinzesa ederrik, zoin baitira orationia, barura eta amoina; halaber goix-arratzez egin behar duzun konzenziaren examena eta Andere honaren lethariñak. Haien irakurtzian egiten baduzu zure arimaren profitia eta linkoari othoi egiten obra honen Autoragatik, ukhenen drauzut mila obligatione eta linkoak emanen drauzu zelian zure penaren rekompensia.

Aruen, urrietaren 29. 1667

KONZENZIAREN EXAMENA

Philo Iudaeus autor zahar batek eta saindu batek dio Apostolien denboran eta geroz lehen hatsarreko kristinoek kostuma laudable bat eta saindu bat zutela egunian berritan bere orationen linkoari egitera. Goizian linkoari galdatzen zutela gratia eta argia egun hartan bekaturik ez egiteko, baina bai haren zerbutzu saindian enplegatzeko. Arratsian bere bekatien eta falten ezagutzeko eta bere espirituen deskargatzeko inpresione gaixto orotarik eta bekatiazen haxe orotarik.

S. Bazila iaunak ere dio, eguna igaranez geroz, eta akabatuz geroz espirituaren eta gorpi-tzaren obrak eta okupationiak oro, gure konzenzia konsultatu behar dugula zer ere linkoaren kontre erran, egin eta pensatu ahal bait duke, edo gure kristino lagunaren kontre; eta haiezaz oroz linkoari barkamendu galdaturik, gure konzenzia xahatu eta purgatu behar dugula, eta eztugula gutiago kurios izan behar gure arimen estatu honian edukiteko, nola baikira gure

begien zerratzeko lo hon egin dezagun, eta gure kanberen zerratzeko, airiak edo ohoiñek gure gorpitzak eta gure osagarriak ezitzen inkomoda edo altera.

Kostuma edo eginbide saindu haur goizian eta arratzian hobeki obserba eta pratika ditza-gun, hebe pian eskiribaturik daudian bost aktoak begira itzatzu belharikaturik, bi eskuak iuntaturik, begiak aphaldurik, kruzifix baten edo imajina debot baten aizinian ur benedikatuz zeinhaturik, lurrari pot bat eginik.

Errazu: «in nomine Patris et Filii et Spiritus Sancti. Benedicta sit sancta et individua Trinitas, nune et semper et per infinita saeculorum saecula. Amen». «Angele Dei, qui custos es mei, me tibi commissum pietate superna hac die (edo «hac nocte»), illumina, custodi, rege et gubernas. Amen». Gero erran izatzu Andere gloriosaren let-hariñak hebe pian diren bezala.

BOST AKTOAK

LEHENA, ADORATIONIA

Neure linkoa eta kreatore handia eta suprema, adoraten zitut neure bihotz oroz eta neure arimaren indar guzietz adoraten dut zure handitarzuna, Majestatia, hontarzuna, boteria, zuhurtzia, miserikordia eta iustitia infinitoak eta inkonprehensibliak, eta adorationetan susmetitzen dut eta abandonatzen osoki neure gorpitza, neure arima, neure onak eta nizana oro zure plazer onaren dispositioniari, nola bainitz zure zerbutzari hunblia eta zure kreatura pobria eta tipia.

GRATIAZKO AKTIONIAK ETA ESKER ALA-GESTAK

launa, remerziatzen zitut infinitoki zure esku liberaletik rezebitu ditudan gratiez eta benefizioz. Zuk kreatu nuzu, hazi, konserbatu egungo egunera drano; izuk erosi eta raxetatu nuzu zure Semiaren hilze eta pasione saindiaz eta dolorosaz; zuk deithatu nuizu fediala eta hanbatetan rezebitu miskrikordiala.

OHORESKIA ETA OFRANDA

Hartakoz, o ene launa eta linkoa, gratien eta alagesten aktionetan ofritzen drauzut neure bihoza oro, neure gorpitza, neure arima, neure bizia, neure onak, neure pensamendiak, neure hitzak eta obrar, neure tribailia, nizana oro eta niri apartenitzen dena oro, suplikatzen eta othoizten zutudalarik, nahi duzun hori rezebitu eta oro ialgi erazi, zure izen saindiaren gloriala, zure Eliza saindiaren hobeniala eta ene arimaren salbamendiala; eta intentione hortan proposateen dizut handizki, goraki eta fermoki korrijituko dudala neure bizitzia eta lehen millatan hilen nizala, eziez zu mortalki, dakidalarik eta neure borondatez, ofensa zitzadan.

GALDOA ETA DEMANDA

Baina, launa, badakit eztudala deus eta ezin deus ahal dukedala, zure gratia gabe; hartakoz neure propos ona konpli ahal dezadan rekiritzen dizut hunbleki jure sokorria; har zazu pietate zure zerbutzari pobriaz, barka izazu ene bekatia oro; ene urhatsak gida izazu zure manu

saindien obserbanzian eta eztizazula utzi aha-
tzera ene nezesitate pobriak. Gratia horik oro
othoitzen zitut mundu orori eman dizazun, baita
ene etsai orori. Iauna, konpasionerik ezazu zure
kreatura pobrez; so egizu zure Eliza saindiaren
afliktioniari, eta pazifika ezazu, exalta eta bethe
zure benedikzioerik saindiez; iustoak augmenta-
izazu; bekatoriak konberti, aflijitiak konsola eta
pobre nezesitosak.

O Birjina eta linkoaren Ama, remerziatzen
zutugu zure sokorriaz eta faborez, zeren oradrai-
no zure othoize sainduerik sokorritu baikituzi.
Kontinua ezazu, o Andere ona, zure eskuen guri
hedatzera, eta ezkitzazula iagoiti abandona,
prinzipalki gure herioaren azken orena jin daitia-
no.

Remerziatzen zutugu halaber eta othoitzen,
gure ainguru guardianak eta paraduzuko saindu-
saindiak guri kontinua dezaten bere interzesione
faborabilia linkoa baitan, gure laun komuna, zoiñi
den ohore eta gloria «secula seculorum, Amen».

BOSTGUARREN AKTOA KONTRITIONIA

Kontritioniaren digneki egiteko zure memorioan ungura bat egin ezazu azken examenaz geroz, non izan ziren goizian, barazkal ondoan, arratsian; non izan ziren, zoin persona hantatu duzun, hekila zer erran duzun, zer okupatione ukhen duzun, zer egin duzun, erran edo pensatu, edo utzi egiteko, zointan linkoa ofensatu bailizate. Examina ezazu faltak eta imperfekzioniak, zointara baitzira gehiago emana eta inklinatia eta erori ahal baitzinate ardurenik, hala nola, kolera, inpatientia, gaixki minkatzia, banitatia eta halako hertze bekhatiak; kausa eta okasio-
nia, zoiñek hetara erori erazi baikutu, afin eta ihesi egin depalun haier, ebita ditpalun. Zer intentione ukhen dukun haien egitian, erraitian, pensatzian edo neglijatzen. Unguru edo xerku hau egin duzunian zure gogoan eta memorian, egizu kontritioniaren akto hau zure bihotz oroz.

Horiez oroz, o launa, barkhamendu eske nauzu unbleki eta bertze kulpa eta bekhatu infinitatez, loin ene neglijenzia edo ignorantia dela kausa ezin ezagutzen baititut; dolu eta regret handi bat dizut, zeren ofensatu baizitut; suplika-

tzen zitut, nahi dutuzun utzi ahatzera ene bekhatiak oro; nahi dutuzun erre zure amorio saindiarren suian; itho, haiegatik isuri duzun kure odol preziozaren ixaso gorrian. Proposatzen dizut orai zure gratia saindiarekila batian, zoin gabe ezin baitirot deus nahi, ez egin zuri laket zauzunik, korrijituko nizala hementik harat eta fidel izanen nizala zuretzat eta hobeki egonen nizala neure goardian eta sentinelan neure aktione orotan, erranetan eta pensamendietan. O launa, indazu gratia eztezadan iagoiti deus egin, erran, pensa, zure Maiestate adorabliaren begitan desplazentzenik. Begira nezazu eta preserba danjer eta inkonbenient orotarik egun eta gau hontan neure ariman eta neure gorpitzian. Iunta nezalu eta uni zuri zihauri hain hersiki, non deusek ere enekan separa, ala nagoen lo, ala iratzarririk. O neure Iesus maitia eta dulzia, egizu hain onsa, non zugatik eta zutan pausa nadin.

«In pace in idipsum dormiam et requiescam. Domine, exaudi orationem meam. Et clamor meus ad te veniat. OREMUS: Deus, cui proprium est misereri semper et parcere, suscipe deprecationem nostram, ut nos et omnes famulos tuos,

quos delictorum catena constringit, miseratio tuae pietatis clementer absolvat. Per Christum Dominum nostrum. Amen».

«Salva nos, Domine, vigilantes, custodi nos dormientes, ut vigilemus cum Christo et requiescamus in pace. Custodi nos, Domine, ut pupillam oculi. Sub umbra alarum tuarum protege nos. Dignare, Domine, nocte ista, sine peccato nos custodire; miserere nostri, Domine, miserere nostri. Fiat misericordia tua, Domine, super nos, quemadmodum speravimus in te. Domine, exaudi orationem meam, et clamor meus ad te veniat. OREMUS: Visita, quaesumus, Domine, habitationem istam et omnes insidias inimici ab ea longe repelle. Angeli tui sancti habitent in ea, qui nos in pace custodiant, et benedictio tua sit super nos semper. Per Christum Dominum nostrum, Amen. Benedicat et custodias nos omnipotens et misericors Deus, Pater et Filius et Spiritus Sanctus, Amen».

Errazu gero hirur «Pater», hirur «Ave», hirur «Gloria», behin «Credo», behin «Confiteor», behin «De profundas». «Divinum auxilium

maneat semper nobiscum, Amen. Nos cum prole pia, benedicat Virgo Maria, Amen»

* * *

Nous soubssignez certifions que nous avons leu et examimé par l'ordre de Monseigneur l'Illustrissime et Reverendissime Evesque d'Oleron le livre intitulé *Arima penitentaren occupatione devotac*, composé par M. lean de Tartas Curé d'Aroüe, que nous n'y avons rien trouvé qui soit contraire à la Doctrine Catholique, Apostolique et Romaine, et que nous l'avons iugé digne d'estremis au jour pour l'utilité du public. A Mauleon ce 23 Aoust 1668.

BONNECASE, Curé de la ville de Mauleon.

Fr. NICEPHORE Capucin.

Gük pian siñatü girenek fede egiten dügü irakurtü dügüla eta examitü librü *Anima penitentaren okupatione debotak* intitülatü eta Arueko laun Erretorak konposatü izan dena, zuintan ezpaitügü deusere ediren Doktrina Katholikari, Apostolienari eta Errumekuari kontrario denik

eta püblikaren profetiagati inprimatü izateko
digne iüjeatü dügüla. Maulen Agorrilaren
23.gerrenian, 1668.gerren urthian.

BONNECASE Maulioko Erretora.

Fr. NICEPHORE Capucin

Nous ARNAUD FRANCOIS DE MAYTIE par la
grace de Dieu et du Saint Siege Apostolique
Evesque d'Oleron, Conseiller du ROY en tous ses
conseils et Baron de Moumour. A tous ceux qui
ces presentes lettres verront salut en Nostre
Seigneur. Ayant commis et depute Maistre Sans
de Bonnecase Curé de Mauleon en Soule de nos-
tre Dioceze, et le Reverend Pere Nicephore
Capucin, aussi resident en ladite Ville de Mau-
leon, comme capables et idoines pour examiner
le livre intitulé *Atima penitentaren occupatione
devotac*, langage vulgaire dudit Pays de Soule,
composé par Mr. lean de Tartas Prestre et Cure
d'Aroue de la mesme Province et de nostredit
Dioceze, veues et meurement considerées les
attestations desdits de Bonnecaze et Nicephore
et adjoustant foy a leur examen, avons donné
nostre approbation et permettons audit de Tar-

tas de le mettre en lumiere et le faire imprimer ou bon luy semblera, en foy de quoy avons signé les presentes de nostre main, fait apposer nostre sceau Episcopal contresigner par nostre Secretaire. Fait dans nostre Palais Episcopal d'Oleron, le vingt sixiesme Octobre mil six cents soixante huict.

ARNAUD FRANCOIS DE MAYTIE, E. D'OLERON.

Par mandement de mondit Seigneur lilustrissime et Reverendissime Evesque, BERGES Secretaire.

LEHEN KAPITULIA ORATIONIA

Zer den,
haren nezesitatia,
nolako behar dian izan,
zer bertute eta indar dian
linkoa baitan.

*«Clamaverunt iusti et Dominus
exaudivit eos» Psal. 33.*

Arima debotak eta penitentak hirur Prinzesa edo hirur Erregina behar dutu berekila konserbatu eta khario eduki, nahi bada bizi linkoaren amorioan, haren zerbutzian; haren beldur saindian mundu hontan bizirik, nahi badu haren gratian hilik haren gloria eternala zelian ardiatsi.

Hirur Prinzesa hurak dira orationia, barura eta amoina. Hetarik lehena da orationia, zoin doktor saildiek komunski partitzen baitiuzte bi partetara edo bi menbrutara. Lehena da oratione mentala eta segonta oratione bokala; lehena da ama eta segonta alhaua; lehena egiten da

bihozez, gogoz eta espiritus, eta segonta mihiz eta ahoz; lehena hon da segonta gabe, baina segonta ezta iagoiti hon lehena gabe. Hargati gure launak reproxu egiten zian iudu falsu eta gaizto haier, «Populus iste labiis me honorat, cor autem eorum longe est a me» (Math. 15), «populu falsu honek espaiñes, ahoz eta mihiz ohoratzen nu, alabaina hoien bihotiza niganik hurrunda», niganik apart dago.

Segurrena da, noiz ere mentala eta bokala biak iunto baitira linkoaren onsa eta gogo honez adoratzeko, maitatzeko, laudatzeko, remerziatzeko, hari ohoraskatzeko eta galdatzeko behar diren gauza justo, hon eta lejitimo diren orenen, zuin baitira orationiaren suiet, fundamento, objekto eta fin prinzipalak.

Nahi dianak onsa ikasi manera eta methoda oratione mentalaren pratika, irakurt bitza P.P. Iesuista debot hek, Coton, Causin, Richeome, Binet, Pons eta bertze anhitz, zoiñek dokteki materia haur traktatzen baitute, zoin komunski deitatzen baitira Iesusen Konpaniako Aitak, zoinen ordriaren lehen fundazaliak izan baitira S. Ignaze de Lohiola eta S. Franzes de Jabier, biak

euskaldun Euskal herrian sortu, eta zoiñen dizi-
pulu digniek ohore eta abantailla handirik egun
oroz emaiten baitute Iesu-Kristen elizari, populu,
nazione kristino diren orori, ixasoan eta lu ido-
rrian, orienten hasirik ozidentera drano. Irakurt
beza oraino S. Francois de Sales, Genebako Prin-
ze eta apeskupia; irakurt beza oraino P. Marc le
Telier, Recole franziskanoa, eta P. Gery espaiño-
la, Iesusen oratorioan apheza. Han eridenen du
nontik bere espiritua kontenta hobeki, eziez ene
libruto hontan, zointan kontentatzen bainiz errai-
tera orationiaren definitionia, konditioniak eta
bertutiak ahalik eta laburskiena irakurtzalia
enuiatu gaberik.

tala eta segonta oratione bokala; lehena da
ama eta segonta alhaua; lehena egiten da biho-
zez, gogoz eta espiritus, eta segonta mihiz eta
ahoz; lehena hon da segonta gabe, baina segon-
ta ezta iagoiti hon lehena gabe. Hargati gure lau-
nak reproxu egiten zian iudu falsu eta gaizto
haier, «Populus iste labiis me honorat, cor aute-
meorum longe est a me» (Math. 15), «populu
falsu honek espaiñes, ahoz eta mihiz ohoratzen

nu, alabaina hoiien bihotiza niganik hurrun da», niganik apart dago.

Segurrena da, noiz ere mentala eta bokala biak iunto baitira linkoaren onsa eta gogo honez adoratzeko, maitatzeko, laudatzeko, remerzia-tzeko, hari ohoraskatzeko eta galdatzeko behar diren gauza justo, hon eta lejitimo diren orenen, zuin baitira orationiaren suiet, fundamento, objekto eta fin prinzipalak.

Nahi dianak onsa ikasi manera eta methoda oratione mentalaren pratika, irakurt bitza P.P. Iesuista debot hek, Coton, Causin, Richeome, Binet, Pons eta bertze anhitz, zoiñek dokteki materia haur traktatzen baitute, zoin komunski deitatzzen baitira Iesusen Konpaniako Aitak, zoi-nen ordriaren lehen fundazaliak izan baitira S. Ignaze de Lohiola eta S. Franzes de Jabier, biak euskaldun Euskal herrian sortu, eta zoiñen dizi-pulu digniek ohore eta abantailla handirik egun oroz emaiten baitute Iesu-Kristen elizari, populu, natione kristino diren orori, ixasoan eta lu ido-rrian, orienten hasirik ozidentera drano. Irakurt beza oraino S. Franzois de Sales, Genebako Prin-ze eta apeskupia; irakurt beza oraino P. Mark le

Telier, Rekole frantziskanoa, eta P. Gery espainiolar, Iesusen oratorioan apheza. Han eridenean du nontik bere espirituak kontentua hobeki, eziez ene liburu hontan, zointan kontentatzen bainiz erraitera orationiaren definitioak, kondizioak eta bertutiak ahalik eta laburki irakurtzaileria enuiatu gaberik.

«Orationia da espirituaren eta arimaren goiti Jinkoaganat alxatzia edo linkoari gauza iustoen galdatzia», hala dio S. Damask. (Lib. 3. De Fide Orthod.): «Oratio est ascensio mentis in Deum, sive decentium a Deo petitio». (S. Augustin sermon 230. de temp.), dio: «Quid est oratio nisi ascensio animae de terrestribus ad caelestia, inquisitio supernorum, invisibilium desiderium?», «Zer da orationia lurreko gauzetarik zeluko gauzen xerkatzia, gauza inbisiblen desira eta amorioa baizi?». (S. Chrysost. hom. 30 In genesi), dio: «Orationia da Jinkoarekin minzatzia», «Est colloquium cum Deo». S. Basil. (orat. In Iulia. mar.): «Oratio est boni cuiuspiam petitio, quae ad Deum a piis effunditur», «Orationia dela gauza hon baten galdoa, poin iustok linkokoari egiten baitute».

Definizione komuna da haur: orationia dela linkoari gure desiraren explikatzia eta representatzia, harganik zerbaiten ardiasteko: «Oratio est desiderii nostri coram Deo explicatio, ad aliquid ab illo impetrandum». Hementik ensegitzen da orationian badela bi akto; lehena da, noiz ere gure bihotzian formatzen baitugu desirkunde bat gure linkoaganie obtenitzeko zoinbat gratia eta fabore, edo delibratzeko gure burien zoinbat azident edo danjer handitarik, eta desir hori baitugu edo gure edo gure lagunena. Segond aktoa da, noiz ere desir hori baitugu representatzen bihozez edo mihiz, mentalki eta bokalki. Manera hortan dira endelgatzen erran diren orationiaren definizioniak.

SALBATZEKO BEHARREZKO DA

Segur da orationia absolutoki nezesario dela salbatzeko; hargati gure launak erran zian bere Pasionian bere Apostolier (Marc. 14): «Vigilate et orate, ut non intretis in tentationem», «zaudezte bijilant eta erran ezazie oratione, eror etzitién

tentationian». Eta S, Math. 7. dio: «Petite et dabitur vobis»; eta St. Luk: «Petite et accipietis», «Galda ezazie eta emanen zauzie»; «galda ezazie eta ukanen duzie». Haren arraizoiña klar da, zeren behar dugu Jinkoari susmetitu, ezagutu hura dela gure prinzia, gure prinzipios, gu haren kreaturak eta haren esklaboak; hura gabe ezdeusak gira. Hala dio Eskritura saindiak (Isa. 45.): «Mihi curvabitur omne genu», «Belhain orok niri gur egiten du». Bada sumisio hori egiten du barneti eta kaupto gure Jinkoari oratione mentalaren eta bokalaren moienes; hanbategi orationia nezesario da salbatu izateko.

Anthiocus Erregemiserable hark konfesio hori egin zian bere tormenten artian: «lustum est subditum esse Deo et mortalem non paria Deo sentire» (2. Mach. 9): «lusto da Jinkoari obedient eta susmetitu ilatia eta gizon mortalak orok sendi eta pati dezan jinkoak ezin senditzen eta patitzen diana», zonbatere malhuros eta infame hura bere othoizian ezpaitzen exaudituzan, zeren ezpaitzian behar zena eta behar bezala jinkoari galdatu. «Orabat scelestus Deum, a quo non erat veniam consequuturus»,

«Othoitzen ziala jinkoa, baina etziala perilik ardias lezan harganik bere barkamendia».

Profeta roialak ere dio gizonak salbatu izatekoz behar diala abaxatu eta susmetitu eta gurtu jinkoari, eta gero bere orationia egin: «Subditus esto Domino et ora cum».

S. Thomasek dio orationia dela relijionesko akto bat, zointan gizonak erakusten baitu linkoa dela hon ororen emailia, prinzipios eta launa; haren beharra diala eta orationiaren moienez jinkoari bere ohoiak, adorationiak eta kultoak rendatzen dutiala, kreatura hunble batek bere kreatorari zor dian bezala.

BESTE ARRAZOI BAT

Orationiaren nezesitatia salbatu izateko porogatzen da bertze arrazoiñ eder hontzaz. Salbatzeko nezesario da gizonak lhesi egin dezan bekatu mortaler eta egin obra honik; bada gizonak ezin egiten dutu bi gauza hok linkoaren gratiaren sokorri aktuala gabe, eta gratiaren sokorri aktuala ezin ardiasten da orationia gabe, zeren

hura baita moien bat, zoin gabe linkoak ezpaitu emaiten gratia; hanbateki orationia nezesario da salbatu ikateko.

Prezepto afirmatiboak eztu obligatzen gizona «pro semper», iagoitiko, negatiboak bezala, baina solamente «pro tempore», behar den denboran eta okasionetan; hala nola, noiz ere nehork senditzen baltu tentatione handi bat eta danieros bat, zoini ezin egiten baitu resistentiarik, eta ezin garaitzen baitu; noiz ere nehork bere buria hilzeko danieretan ikusten baitu, partikularki bekatu mortalien bada ordian; jagoiti ilatekoz, obligatu da linkoari galdatzera bere bekatien remisioniaren, noiz ere bekatoria tenitu baita gratiala disposatzera, hala nola, nahi dian berak sakramendia rezebitu edo berzer administratu.

Hortik behar da konkluditu gizona ezin daukiela denbora luzez bekatu mortal gabe orationiaren aiutia gabe, zeren ezin bizitzen baita tentatione gabe hanitz denboraz, eta tentationiak ezin garaitzen baitu orationia gabe. Nork ere bere buria ikusten baitu danjer eta peril horietan, ezpadeza orationia besarka arma segur bat

bezala haien kontre, erorten da segurki bekatu mortalera eta damnatione eternalera, hartan hilzen bada. Pobre batek bere buria hilzera uziten dianian, goses hilzera, ahalkez edo herabez amoina galdatzera, bere buriaren erhaile date, zeren eta amoina galdatu balu bere bizia salbatzen ahal baitzian. Nehork bere buria ikusten dianian ohoin eta bolurren artian eta uzten hilzera oihu eta heiagora egin faltaz, bere bizia salbatzen ahal zialarik oihu eta heiagora egin balu, halakoa ere damnatu date, zeren bere buriaren murtrier eta homizida baitate.

Ber forman eta maneran, gizonak bere buria ikusten dianian danjer espiritual haietan eta ez oihu egiten linkoari, zoiñek baitu botere haren delibratzeko danjer haietarik, peril handi batetan ezarten du bere arima galzeko eta damnatzeko.

Arima debota eta penitenta, danjer haietan zirenian oihu egizu eta heiagora linkoari bertze ordus errege Ezekias ari zen bezala: «Domine, vim patior, responde pro me, quid dicam aut quid respondebo cum ipse fecerim?» (Isa. 38), «launa, phenatan nuzu; urgatz, nezazu, emazu arraposta enegatik; zer emanen dut edo arra-

postu emanen dut, ni nizanaz geroz egilia eta ogenduna?

Errazu Profeta roialak bezala: «Clamabit ad me et ego exaudiam cum; cum ipso sum in tribulatione, eripiam eum et glorificaba eum» (Psal. 90), «Eginen du oihu niri eta nik enzunen dut; harekila niz haren tribulationian, delibratuko dut eta glorifikatuko». Imita ezazu losafat: «Cum ignoremus quid agere debeamus, hoc solum est nobis residui, ut oculos dirigamus ad te» (2 Paral. 20), «launa, phenatan gutuzu, zer egin behar dugun eztakiguzu; gure esperanza eta gure konsolationia zutan duzu, gure bihozak eta gure begiak zugarat goiti alxatzen zituguzu». Koraie, arima debota; zure tribulationia ioanen da, zure orationia linkoae enzunen du bi haiena bezala.

Ezkira solamente obligatu behar-ordian gure buriegati linkoaren othoitzera, baina orano gure kristino lagunegatik, ikusten dutugunian extremitate handitan. Gure laguna ikusten dugunian gosez hiltzera doela, obligatu gira hari sokorri emaitera, amoina eta honki egitera damnationiaren phenan. Ber gisan ikusten dugunian gure

laguna tribulatione espiritual handi batetan, gure oratione honez obligatu gira haren sokorritzera, hargati linkoari othoi egitera; bertzela galdiak gira. Hargati erran du Apostoliak loandone loanek: «Orate pro invicem ut salvemini» (Iaco. 5), «Batak bertziagatik othoi egizie, amorekati salba zitezten».

NON EGIN OTOIZ

Arima debota eta penitenta, gure Prinzesaren laur kalitatiak edo laur konditioniak hasi gabe, dugun ikusi zer lekutan orationia den hobe, eta non den hobe linkoari gure othoitzia ohoeska ditZagun, eta gero examinatu behar dira gure Prinzesaren laur anderiak edo laur neskatoak.

Orationia leku orotan ongi jin da; linkoa leku orotan da, oro ikusten dutu, oro enzuten dutu; leku orotan da «per essentiam, per potentiam et per presentiam», «Bere esentiaz, bere boteriaz eta bere praesentiaz», Profeta Roialak erran dian bezala: «Si ascendero in caelum, tu illic es; si descendero in infernum, ades (Psal. 138),

«launa, zelurat igan banadi, zu han zira; ifernur-
rat ieusten baniz, han present zira; zu orotan
zira.

Populiagati egiten diren oratione publikoak,
hala nola, lethariñak, prozesioniak, mezak, pere-
dikoak eta exortationiak, egin behar dute publiki,
orok ikus eta enzun dezaten elizetan partikular-
ki, erran dian bezala Profetak: «In ecclesiis bene-
dicite Domunum» (Psal. 67), «Elizetan lauda eza-
zie launa eta benedika». Hargati eliza deithatzen
da linkoaren exia, ene exia da orationiaren exia
«Domus mea domus orationis vocabitur» (Math.
21), «Ene exia deithatu izanen da orationiaren
exia».

Leku hura da ordenatu orationen egiteko.
Han ikusirik gure lagunak oratione erraiten,
debotionian sartzen gira haien imitatzera. Han
diren gauza saindiek, sakramendiek, unzi eta
basa sakratiek, imajinek, aldare saindian ungu-
ru-unguru ibiltzen dizen ainguriek leku saindu
hazen konsiderationiak, zointan espata figurarik,
lege zaharrian bezala, baina bai erideiten egias-
ko linko gizon bat eta egiasko gizon linko bat,
konsideratione saindu horik obligaten, dute

arima debota eta penitenta linkoari bere othoizten egitera eliza saindietan, partikularki orationiak badira publikoak.

Baina oratione partikularak leku orotan ongi jin dira, argi egiten badira ber, orobat kanberan, orobat kabinetian, borta zerraturik, gure launak erakusten dian bezala: «Tu autem cum veris, intra in cubiculum tuum et clauso ostio ora Patrem tuum qui videt in abscondito» (Math. 6), «Noiz ere eginen baituizu zure orationia, sar zite zure kanberan, eta borta zerraturik, othoi ezaz zure Aita, zoiñek ikusten baitu sekretian».

Pasaje hortan ezta defendiatzen orationia elizati kampoan, eta eztu erraiten eztela hon elizan baizi, baina S. Krisostomek dio: «Puto non ad locum referri quod Dominus ait, sed ad propositum orantis», «Eztiala estekatzen orationia lekuari, baina minzo dela orationiaren egiliaren borondatiaz eta intentioniaz». Erran nahi du gure launak eta haren ondoan saildu honek, nehor beldur bada orationiaren egitian urgillia, banitatia han sar dadin, edo bortharen ezkiez papatzian edo ezkien goiti alxatzian edo oihu eta heiagora egitian, hobe dela ordian orationia egin

dadin kanberan eta kabinetian bortak zerraturik, «clauso ostio», orationiak eztezan gal bere balioa eta bere frutia, banitatia dela kausa, zointara danieros belizate haren egilia eror ladin, postura haietan egin baleza bere orationia gizonen aitzinian.

Danier hortarik kampoan arkord gira orationia hobe dela elizan, eta han Jinkoak hobeki exauditzen diala gure othoizia, erran zian bezala bertze ordus Salomoni, Hierusalen haren ohoretan templia akabatu zianian: «Audivi orationem tuam et elegi locum istuin mihi in locum sacrificii» (2 Paralip. 7), «zure orationia enzun dut eta leku haur hautatu dut, sakrifizioak han egin ditian ene ohoretan». Arkord gira halaber leku orotan orationiak hon direla, onsa egiten badira ber. Arima debota eta penitenta, orationia hon dukezu, behar diren gauzak humilki galdatzen badira, orationiaren egilia gratian bada, atentio-
nia badu eta preserbatzen badu. Hok dira gure Prinzesaren laur anderiak eta neskatoak. Dugun lehena examina.

ORATIONIAREN LEHEN KONDITIONIA GAUZA ONA ESKATZEA

Ezta behar galdatu deus linkoari, non ezten iusto eta lejitimo non ezten eman linkoaren gloriari eta gure arimaren salbamendiari. Hala dio S. Augustinek: «Petere in nomine Salvatoris est ea tantum petere, quae ad salutem nostram faciunt aut Dei gloriam (Trait 73, in loa.), Galdoak egin behar du linkoari Iesus haren seminaren izenian. Manera hartan egiten delarik, badugu promes gu launak emanik, zer ere haren Aitari haren izenian galdatuko baitu hura oro ukhenen dugula: «Amen dico vobis, si quid petieritis Patrem meum in nomine meo, dabit vobis» (loa. 15); eta zeren ezpaitugu galdatzen behar den bezala, hargatik dio Apostolu batek eztugula ardiasten gure linkoaganik gure demandaren eta gure othoiziaren efektoa: «Petitis et non accipitis, eo quod male petatis et in concupiscentiis insumatis» (Iaco. 4), «Galdatzen duzie eta ez obtenitzen, zerzen gaixki eta gaixtoki galdatzen

baituzie eta zien othoiziak zien gaixtakarietan eta zien boluptatetan emplegatzen baitituzie».

Sokrates filosofak erraiten zian etzela behar deus galdatu linko imortaler, baina solamente ongi egin dizagien; hek iakinen zutela guk batbederak zer behar gundian. Bermianeran dezagun galda gure linkoari haren gloriari eta gure arimen salbamendiari eman diren gauzak; ikosiko du gure linkoak guk zer behar dugun. S. Bazilo iaunak dio gure Erregia liberal dela eta handi; samurtzen dela gauza xipirik hari galdatzen dugunian eta samurtzenago behar eztirenak hari galdatzen dutugunian: «Indigne fert quando quis exiguum aliquid a se petit, multo magis si ea petimus, quae minime conveniunt» (Art 5. et 6.).

S, Thornasek dio gauza batzu linkoari behar direla galdatu absolutoki, hala nola bizitze eternala eta moienak hara helzeko; bertze gauza batzu, hala nola, aberaztazunak, oheriak, bizitze luzia, ezkonze aberatsak, behar direla linkoari galdatu konditionerki, gure arimen salbamendia- ren hon, profitable eta advantailoux ikanen direla eta bertzela ez; arimari konbenitzen badira

bai, bertzela ez. Orationiaren forma haur ederra da: linkoa othoi dezagun egin dezan gutzaz plazer diana oro, ikusiko dian bezala haren gloriari eta gure salbamendiari eman dela.

S. Augustinek dio onsa konsidera eta examina badezagu oratione dominikala, «Pater noster» (Epist. 21. ad Probam.), gure launak bere Apostolier, bere dizipulier, bere elizari eta guri orori erakusi diana, eridenen dugula gure oratione ororen bertutia eta hitzak oro han direla; hari konformatzen bagira, eztugu iagoiti deus galdatauko linkoari, non ezten haren gloriaren eta gure arimen salbamendiaren, eta oro Iesus haren semiaren izenean.

Arima debota eta penitenta, haur da gure Prinzesaren lehen anderia eta neskatoa; dugun konsidera eta admira bigarrena, zoin baita gratiazko estatia, zointan behar baitu izan orationiaren egiliak. Haur da orationiaren arima, bizia eta giza.

ORATIONIAREN BIGARREN KONDITONIA GRAZIAN EGOTEA

Gure lehen Prinzesa ederrak nahi du eta behar du bere aldian linkoaren gratia, xahutarzuna eta puritatia. Andere honen faltaz Prinzesak eztu ukenen lo onik, linkoaren gortian inutila izanen da, ezta ongi jin izanen zeluko palatioan. Hala dio Eskritura saildiak: «Cum multiplicaveritis oraciones vestras, non exaudiam vos, manus enim vestrae sanguine plenae sunt; qui declinas aurem suam ne audiat legem, oratio eius execrabilis est» (Issa. 1. Prov. 28), «Nois ere zien orationiak doblatuko baitituzie, ezzutiet enzunen, zien eskuak odolez betherik daude; nor ere ezpaita nahi behatu linkoaren legiari eta haren botzari, haren orationia exekrable eta abominable izanen da».

Profeta Roialak konparatzen du orationia inxensiarri. Inxensiak, ezpadadi iar inkaz bizian, eztu emaiten kerik, ez urrinik; inkazak behar du izan inkaz bizia eta ez inkaz hila, kerik eta urrin honik emaiteko: «Dirigatur, Domine, oratio mea

sicut incensum in conspectu tuo» (Psal. 140), «launa, ene orationia ezarzu pizturik eta xuxenturik zure aitzinian gratiaren eta karitatiaren suiaren moienes. Ber maneran arima bat ezpada gratian, haren orationia hila izanen da eta bertute gabia linkoaren aitzinian, inxensia den bezala inkaz hilaren gaiñian.

Inxensiak bere ialgitia eta sortzia hartzen du pinoa deithatzen den zuhaintze gora, handi eta xuxen harganik; arima batek ere behar du igan xuxen, iusto, gora, eta gratian, nahi badu haren alhaba, baita orationia, den exauditua, enjun eta ongi jin linkoaren aiteinian.

Lege zaharrian ere ageri da nehor etzela ausat Tabernakle Saindian sartzera, ez eta sakrifiziorik egitera, ezpalis xahu eta santifikatu biziaren penan: «Omnis homo qui accesserit ad ea quae consecrata sunt, in quo est immunditia, peribit coram Domino» (Levit. 22)», Nor ere sartuko baita gauza saildu eta konsekratu diren lekura xahatu eta purifikatu gabe, galduko da eta perituko linkoaren aitzinian. Ber maneran, arima debota, zure orationiaren ohoeskia eta Fizioa zure linkoari nahi dugunian egin, zure kon-

zenzia onsa purifika ezazu eta santifika; gratian sar zite, bertzela haboro damnudukezu zure orationian eziez profeitu, eta zure linkoa deshortzen duzu konzenzia kriminel bateki hazen miserikordiaren inportunatziaz, dagua eskuan odoles betherik.

HIRU ERATEKO EGITEAK

Pundu honen hobeki endelgatzeko, arima debota, iakin ezazu gizonak lurrian egiten dutian obrak oro direla hirur suertako: edo hilak edo biziak edo mortifikatiak, Theologiak erakusten dian bezala. Eniz minzo bekatu mortalez, zeren hurak baitira damnationezko obrak; minzo niz obra honez.

Obra hilak dira, «opera mortua», zeren ezpaitira karitatan, ez gratian eginak. Egiten duzu barur, erraiten duzu oratione, emaiten duzu amoina, alabaina haien egitian bekatu mortalian zira: obra hurak oro hilak dira gratiaren faltas, zoin gabe ezpaitira batere meritorio linkoaren aitzinian, zeren meritu ororen hatsarria eta prin-

zipioa baita eta karitatia, Theologiaren maximak krakusten dian bezala: «charitas est principium merendi».

Obra biziak dira gratian eta karitatian egiten direnak bekatu mortalen estatuik kanpoan, «opera viva»; hurak dira meritorio eta digne rekonpensu ardiasteko linkoaren aitzinian, linkoak targunez bere hontarzunez promez eman dian bezala haier emaitera.

Obra mortifikatiak, «opera mortificata», dira gratian eginak eta gero bekatu mortalaz estekaturik eta enpexaturik daudianakt. Horren endelgatzeko, arima debota, konparatione honi beha kute. Iguskiak orienten ialgiz geroz lurra ikusten du eta argitzen, baina odei eta lanho lodi bat eta grosier bat iarten denian eta formatzen, iguskiak lurra eztu onsa argitzen, ez berotzen, eta gero ipar aire hon bat jiten denian eta akazatzen odei eta lanho hura, lurra argitzen du eta berotzen iguzki hark lehen bezala. Ez iguskiak bere argia eta ziaritatia galdu zian odei eta lanho hura zela kausa, baina haren argia enpexaturik zagoen

odei hura zela kausa, non ezin helzen baitzen aski onsa lurrari bere agiaren emaitera.

Ber gisan, arima debota, obra hon bat egun egin duzunian gratian barnen, eta bihar bekatu mortalera erorten zirenian, zer gertatzen da atzo egin zunian obra hona? Ezta hilzen, baina bai mortifikatzen. Hori da guk deitatzeko dugun obra mortifikatia, «opus mortificatum»; eta gero jiten zirenian penitentia egitera, Espiritu Saindiaren ipar airiak akazatzen du bekatuaren odeia eta lana, eta obra gaxoa remetitzen da leheneko estatura, pitzen da, digne rendatzen da bere rekompensaran linkoaren aitzinian ardiasteko, «viviscit Opus».

Arima debota, sar zite gratian, ordian egizu ohiu Inkoari; zure obra dukezu obra bizia, «opus vivum», eta zure botza, zure ohiu linkoak enutzen du eta zuri emanen hari galdatzen duzun gauza: «Clamaverunt iusti et Dominus exaudivit eos». haur da gure Prinzesarren bigarren anderia edo neskatoa: gratia, iustitia, bekatu mortaliak gabe izatia.

BI GALDERA

Zoinbat kuriosek erranen du; esteia hon bekatu mortalien izanik obra honik egitia? Erran dugun bezala, obra hura hila date, zeren ezpaita egina gratian; orotrat ere obra hona date «per modum dispositionis et novi gaudii», zeren dis- posatzen baitu bekatoria penitentzia egitera eta gero alegrantia berririk emaiten baitu bekatoria- ri, S. Thomas, Eskolaren ainguriak, erran dian bezala, zonbatere bere naturaz ezpaita meritorio linkoaren aitzinian.

Kuriosak oraino erranen du: linkoak enzuten dutia bekatoria? Gratiaz, bai, baina ez iustitias, ezta tenitu ez obligatu hoien enzutera eta haier bere galdoaren emaitera bere iustitiaren res- petus, zonbatere batizutan bere gratiaren res- petus enzuten baititu. Bekatore oro bi maneratan da:

Edo bekatian bizi da eta borondate aktualian bere bekatian kontinuatzeko eta perseberatze- ko. Halakoaren orationia jinkoak eztu enzuten, ez eta exauditzen. Hala erran du Eskritura Sain- diak: «Cum multiplicaveritis oraciones vestras,

non exaudiam vos, manus enim vestrae sanguine plenae sunt» (Isa, I), «Zien orationiak, nahibada doblatuiak, eztutut enzunen, zeren zien bihozak maletiaz eta bekatiaren odol grosieraz betterik beitaude». Sendimendu hori bera zian Profeta Roialak: «Iniquitatem si aspexi in corde meo, non exaudiet Dominus» (Psal. 45), «launa, neure bekatia eta neure inikitatia neurk bihoztian ikusten dudano eta borondatian nizano hartan obstinaturik egoiteko, enuzu enzunen, ez emanen ene demanda». Jende hetzaz minzo denian S. Krisostomo launa, dio: «Qui orat et peccat vel est in proposito peccandi, non orat Deum, sed deludit», «Nork Ere othoitzen baitu linkoa eta bekatu egiten edo bizi baita bekatu egiteko borondatian, halakoak eztu othoitzen Jinkoa, baina trufateen da Jinkoaz». Halakoak Pilatesen soldadoak iduri dira: gurtzen ziren Iesu Kristoren aitzinian eta gero xofletez bethatzen. Hala ari dira denbora hontako bekatoriak: gurtzen dira egun oroz Iesusen kurutzaren aitzinian eta gero, bere bizio eta boluptate gaixtoez, oren oroz Iesus hura bera dagua-ukaldis hiltzen, desohoratzen eta poiñardatzen;

Edo bekatoria da dolu eta regret diana linkoaren ofensatus; linkoaren amorekatik odio eta detestatione diana bere bekatiaren kontre. Hala-koren oihia Jinkoak exauditzen du. Enzun zian Chananearen oihia erran zianian linkoari: «Miserere mei, Domine, Fili David» (Math. 15), «launa, Dabidten semia, har zazu miserikordia eta pietate nitzaz». Enzun zian seme prodigoa erran zianian bere aitari: «Pater, peccavi in caelum et coram te, iam non sum dignus vocari filius tuus» (Luc. 15), «Neure aita, kriminel nuzu zelian eta lurrian; linkoa eta zu ofensatu zutiet». Enzun zian publikanoa erran zianian: «Deus, propitius esto mihi peccatori» (Luc. 18), «launa, bekatore handia nuzu, egidazu gratia eta miserikordia». Pasaie horren gaiñian dio S. Augustinek: «Si Deus peccatores non audiret, frustra publicanus ille dixisset. Deus, propitius esto mihi peccatori», «Jinkoak ezpalitza bekatoriak enzun, auuerretan erran zutian publikano hark: linkoa, miserikordia egin izadazu». Enzun zian Magdalena, nigar egin zianian eta bere nigarres Iesusen hoiñ sakratiak ekuzi: «Rigavit lachrimis suis pedes eius» (Luc. 7). Enzun zian ohoiñ hona, erran zianian launari

kurutzian urkaturik eta kruzifikaturik zagoela: «Domine, memento mei, cum veneris in regnum tuum» (Luc. 23), «launa, orhit zite nizaz zure resumala,zirenian», zeren dolu hartzen baitute bere bekatiez eta hurak aborritzen eta detestatzzen, eta linkoari prometatzen ez gehiago hetara itzultera. Baina etzian enzun Antiochus gaixtoa, ez fariseu superbiosa, ez ludas traidoria; eztu enzuten gure denboran hanitz bekatore obstinatu, zeren bere malezietan bizi baitira eta borondate aktualian, haboro bekatu egun oroz linkoaren kontre kometitzera.

Gizon bat kolpaturik dagoenian fuzil kolpu batez edo ezpata ukaldi batez, edo haren gorpitza pozoaturik dagoenian, nola nahi zira barberak sendo dezan, bala, burduiña, pozoa gorpitzian deno? Ezta moienik. Idoki behar du behin kanporat balak, burduiñak eta pozoak, eta gero sendotu. Ber gisan bekatariaren bala, burduiña, pozoa idokazu zure arimatik kanporat haren sendatzeko. Bekatia zure arimatik kanporat loan denian, egizu oihu. linkoak enzunen zutu, baina ez bekatia haren barnian deno.

Arima debota eta penitenta, haur da gure prinzesaren bigarren anderia eta neskatoa, gratia. Edukazu andere haur prinzesaren aldi gauaz eta egunaz. Gratia hark emanen du prinzesari lurrian gratia franko eta prinzesak zure arimari zelian gloria franko. Goazen aitzina. Dezagun konsidera prinzesa handi honen hirugarren anderia, zoin baita attentionia.

ORATIONIAREN HIRUGARREN KONDITIONIA ERNE EGOTEA

S.Thomas, Eskolaren aiNguriak, dio attentionia dela hirur suertako: hitzen konsideratzia, haien signifikacionari gogo emaitia eta linkoaren eta bere demandaren xuxen bere gogoan eta espirituan edukitia, eskin ez eizker kanporat barreiatu gaberik. Azken eta heren konditione haur orationian absolutoki nezesario da eta, lehen bi konditioniak ez ukenik ere, orationia hona date eta ez du galduko bere frutia jinkoa baitan.

Orationiaren atentioia oraino deitzen dugu edo aktuala edo birtuala. Lehena da, noiz Ere oratione orotan hasi eta akaba artino ezpaitugu galzen gure intentionia eta debotioia. Birtuala da, noiz Ere orationiaren hatsarrian hartu baitugu eta proposatu fermoki gure orationian ukenen dugula, eta edukiko gure gogoan, intentionia eta atentioia orationia akaba artino; eta gero gure naturaren frajilitatia eta espirituaren flakatia dela kausa, jiten baikira atentioe haren galzera; orotarot ere gure orationia hona date, gutan ezpada faltarik eta egiten badugu eginahala hartara bihurtzeko eta jinkoaganat xuxen gure orationia konbertitzeko. Ordu hartan gure orationia ukenen da eta ardiatsiko du bere koroa eta bere meritia atentioe birtualaren moienez, ez ukenik ere atentioe aktuala.

Atentioe noble eta konplitu hura zian bere othoitzetan Profeta Roialak erraiten zianian linkoari: «clamavi in toto corde meo et exquisivi te (Psal. 118),» launa, neure bihotz oroz zuri ohiu egin dut eta neure debotioiaren indar oroz xerkatu zitut».Horren gainian erran du S. Augustinek hitz hon bat eta eder bat: «Toto corde cla-

matur, quando nihil aliud cogitatur», «Gizonak bere bihotz oroz bere linkoari oihu egiten du, noiz ere ezpaitu berze gaizatan phensatzen».

S. Isidorak erraiten dian bezala: «Ahoko hitzen azanzak eta soiniak zer balio dute, bihoza bada mutu eta hil, eta ezpada minzo?: «Quid prodest strepitus verborum, quando est cor mutum?». Autor hark berak dio gehiago: «nola nahi zira linkoa beha dadin zure botzari eta zure oihiari, izu zihaur etzirenia nahi behatu

zure orationiari? Eztuzu nahi enzun zure othoizia, eta nahi zira linkoak enzun dezan zure demanda?. Gauza hori ezta iustoa ez eta razoinabilia»: «Tu non vis audire orationem tuam et tu vis Deurn exaudire petitionem tuam?».

S. Bernard iaunak erraiten du orationia ezte-la hon attentionia gabe; mihia inutilki eta auferretan traibillateen dela orationian, bihoza ezpada-go othoizez. «Dum cor non orat, in vanum lingua laborat». Gure arimak eztuke debotionerik, gogorik, ez konsolationerik bere othoitzetan, ezpadu attentionia bereki, zeren attentionia da debotioniaren eta plazeraren ama, eta debotio-

nia eta plazera haren alhaba. Ama eztianak ez-
ke alhaba.

S. Donunicus gau batez ioan zen eliza bateta-
ra resolutione saindu bat harturik, gaua oro alda-
re gehienaren aitzinian belharikaturik orationian
igaran behar ziala. Gauherditan postura hartan
zagoela debruak elizaren tinitik harri handi bat
egotzi zian saindu haren aldera. Harriak honki
haren arroparen punta, gorpitza honki gabe;
eliza oro harriak bere azanz handiaz ikaratu eta
mobitu; saildiak hargatik orogatik bere oratio-
niaren attentionia, ez bere gorpitzaren postura,
argi artino galdu gaberik. Demonioak ikusirik
saindu jeneros haren konstantia, attentionia eta
debotionia, dio haren istoriak, oihu eta azanz
horrible bat eginik, elizati kanporat ihesi ioan
zela. Arima debota, imita ezazu honen attentione
handia zure orationian eta, infernuko demonioek
orok tentaturik ere, zaude ferme zure othoitze-
tan.

S. Franzes handiak maxima saindu haur zian
bere debotionetan. Elizan sartzian hur benedika-
tiaren hartzian erraiten zian gisa hontan bere
buriari: «Neure pensamendiak eta egitekoak oro,

zaudeste heben ni jin artino; banoa neure orationen, adorationen eta laudorioen aldare saindian neure Jinkoari rendatzera. Neure lana akabatu dudanian, zien beharrik badut, berritz hartuko zutiet», «Manete hic, cogitationes meae, donec egrediar, et ubi opus Dei complevero, si indigere me vobis contingat, iterum vos assumam». Arima debota, zer exenpla ederra eta saindia saindu honek emaiten drauizun, zure orationiaren linkoaren aitzinian sailduki formatzeko!

Jenesian 22. ageri da, noiz ere Abraham saildiak manu ukhen baitzian, bere seme maitia eta bakoitza Isak sakrifika lezan haren ohoretan mendi baten tinian, bere semia eta bere zerbutziariak harturik berekila, ioan zela mendi haren zolala, eta, han utzirik bere ekipajia oro, ioan zela mendi haren tinira bere semiaz sakrifizio linkoari egitera, erraiten zialarik bere jender: «Manete hic; cum adoraverimus, revertemur ad vos», «Zaudete hemen; ene semiak eta nik egin dugunian gure adorationia linkoari, jinen gira zienganat.

Istoria ederra eta luzia irakurtu nahi dianak, erran den kapitulian edirenen du gauza ederrik

eta misteriosik. Nik ez tut hartzen hantik, ene suietari, baita orationiaren atentionia, hari eman den gauzarik baizi. Zeren uste duzu Abraham patriarka saindiak bere jendia kitatu ziala mendi haren zolan eta berbera bere semiarekila ioan mendi haren tinira bere kolpiaren egitera? Zeren beldur baitzen jende hek trubla lezaten bere sakrifizioaren egitian, eta elian aski atentione bere adorationian; zuri eta niri eta mundu orori exenplu eta lektione egiteko, noiz ere oratione bat edo sakrifizio bat nahi baitugu linkoari rendatu, gure pensamendiak eta munduko egitekoak utzirik «à la part», intentione eta atentione handireki egin behar dugula gure aktionia.

Arima debota, zure orationia nahi duzunian linkoari egin, edo kanberan, kabinetian, bidian, lu idorrian, edo ixasoan, gauaz edo egunaz, ezten zure gogoan linkoa baizi; harekin ziren ordu hartan iosirik eta uniturik atentione handi batekin. Haur da gure prinzesaren hirugarren anderia, atentionia. Dezagun examina laugarren eta azken konditionia edo anderia, zoin baita perseberanzia.

ORATIONIAREN LAURGARREN KONDITIONIA ETENGABE ESKATZEA

Erran komuna da finak koroatzen diala obra: «Finis coronat opus». Orationiak, amoinak, barurak oro hon dira, erran diren konditioniak hekila badira ber, baina gizonak ezpadu hetan perseberatzen eta han finitzen, hurak oro obra hilak eta inutilak dirate. Obra honaren gilza eta balioa oro dependitzen da perseberantiatik eta hartan finizetik. Hanitz mundu onsa hasten da obra hone-tan eta, haietan kontinuatatu eta finitu faltaz, miserableki damnatzen.

Bertze jende batzu miserableki eta gaixtoki hasten dira bere obretan eta aktionetan, eta gero Jinkoaren gratiaren kolpu mirakulos bat huroski finitzen eta glorioski salbatzen. Sorbonako Doktora Parisen onsa hasi zen, haren exenplia ikusi duzun bezala nik Onsa Hilzeko Bidiaz igaren urtian egin dudan librian, baina gero perseberatu faltaz, malhuroski finitu, peritu eta damnatu. Iudas traidoria bertze Apostoliak bezala onsa

hasi zen, eta gero perseberatu faltaz, bere desperationia zela kausa, Iesus bere nabusiaren regret handian bere buria pikotze batean urkatu-rik, bere arima deabruari infamia eta miseria handitan miserableki eta malhuroski largatu eta abandonatu. Bertze Apostoliak oro, zerzen bere linkoaren zerbutzian perseberatu baitziren eta bere biziak eta odolak haren ohoriagatik isuri eta iokatu, trionfa eta ohore handireki salbatu eta sekulakoz glorios rendatu.

Dabid erregia, Magdalena, ohoin hona gaixki hasi ziren bere aktionetan linkoaren kontre eta, gero bere penitentietan eta bere nigarretan fermoki perseberaturik, linkoaren gratiari eta haren bokatione saildiari bere bihotzen kanberaren portaliak ordu honez idekirik eta kabalturik, huroski, glorioski eta trionfantki salbatu eta zelian saildu, sailda gertatu.

Zonbatere, arima debota, kanbio eta diferentia horik bai damnatuetan, bai salbatietan ikusten, eta remarkatzen Eskritura Saindian baitugu eta apostoliak bezala «O altitudo divitiarum sapientiae et scientiae Dei, quam incomprehensibilia sunt iudicia et investigabiles viae eius»

(ad Rom. 11), «o! linkoaren zuhurtziaren eta szientiaren aberastartzunen handitarzuna, ala baitira inkonprehensible eta adorable zure manamendiak eta zure bide saildiak», orotarare fineziarik handiena da gizonari, linkoaren zerbitzian ordu honez hastia, obra honetan gazterik hastia, zeren poetak erran dian bezala «lanaren erdia egin du onsa hasi denak»: «Dimidium caepti qui bene caepit habet». linko honak zure borondate hona, zure obra honian emanen drau, zu indar eta gratia hartan perseberatzeko: «Omnia possum in eo qui me confortat», «Oro ahal dirot hareki baitan, zoiñek konfortatzen baidu», dio Apostoliak.

Perseberantia nezesario dela obra honetan eta partikularki orationian erakustera eman du Iesus gure launak bere pasionian, noiz ere Olibeteko baratxian hiruretan berhalikaturik bere Aita eternalari bere othoitzia egin baitxian forma honetan: «Pater, si possibile est, transeat a me calix iste» (Math. 26), «Neure aita ohoratia eta adorabilia, kaliza haur bihoa eneganik, posible hada», bere Apostolier, bere dizipulier eta guri exenplu emaitako, behin, berritan, hiruretan eta haboro-

tan linkoari orationian oro eskatu behar guntiala, nahi bagina exauditu ziren gure orationiak.

Apostoliak kre hiruretan othoitu zian bere linkoa, delibra lezan tentatione handi hartarik, zoiñek tormentatzen baitzian bere haragiaren alde-tik, berak aithortzen dian bezala. «Ter Dominum rogavi ut discederet a me» (2 Cor. 12), «Hiruretan othoitu dut neure launa, aparta lezan eneganik haragiaren punta eta akulu gaixto hura, zoiñek xoflestatzen eta fatigatzen bainundian». Arrapostia ere ukhen zian launaganik han berian. «Saule, sufficit tibi gratia mea, nam virtus in infirmitate perficitur», «Paul, ene apostolia, zaude ferme zure konbatian, ene gratiaz aski duzu, zure bertutiak ukhenen du bere koroa eta konplimendia zure infirmitatiaren eta flakaziaren erdian». Apostoliaren abisa eta mania da orationian perseberanzia nezesario dela eta hura gabe eztiala meriturik.

S. Bernard debotak dio linkoa ezpada jiten aski sarri gure sokorritzera, eguruki dezagun pazentiatan; jinen dela ordu denian, luzaturik ere zonbait denbora; gure desiren arau jinen dela, gure meritiari rekompensu emaitera. «Quod

si tardat ad votum, non tardabit ad meritum». Noiz ere gibeltzen baita haboro gure arrakestarren enzutera, ordian hobeki augmentatzen diala gure meritia; eta ezzutiala pribatuko hon hartzaz, zoin nahi beitrauzu eman. Zoinbait denboraz luzaturik bere presenta eta bere donoa, hartatik eztugula behar zesatu, ez gelditu linkoari gure othoitzen egitetik, zeren segur baita,, noiz ere gure perseberanzia izanen baita handiago, hala hala gure ohoria eta meritia izanen dela handiago linkoaren aitzinian: «Quod Deus concessurus est, si differt, non aufert», «Zer ere emanen baitu, luzatzen badu eztu edekiten».

Helizea profetak piztu eta resuszitate zianian haur hila, etzian piztu lehenik bere hatsa haren ahoan ezarri zianian; baina zazpitan ezarri zianian bere hatsa haur hilaren ahoan, ordian piztu zian eta resuszitate haur hila. Hori da garbiki erraitia aktione saindien arima eta bizia perseberanzia dela.

Naaman prinze sorhaio eta lepros hura etzen sendotu bere lepratik zazpitan Iordaneko uheitzian sar eta ukuzi artino, mania ukhen zian bezala profetak emanik: «Vade lavare septies in

lordane et recipiet sanitatem caro tua et munda-beris» (Lib.4 Reg. cap. 5). Tronpeta soinus Ieriko hiria Iosuek hartu zian, zazpitan hiriaren unguiria aphezek eta soldadoek eginik eta ez anartino: «Circuierunt civitatem, sicut mandatum erat, septies» (Iosue 4).

Jenesian irakurtzen dugu Iakob eta Esau, Izaak patriarka saildiaren hi semeak, zoin Rebeka bere amak sabeltra batez sorthu baizutian, disputa eta gerra handirik bere artian ukhen zutela, Esauk Iakobpen kontre zerbait inbidia eta malitia harturik. Iekusi zianian Iakobek galdia zoala eta bere anaie Esauk masakratu nahi ziala, oihu egin zian linkoari gisa hontan: «Erue me de manu fratris nici» (Genes. 30), «Iauna, othoi, ene anaie Esauen eskuetarik guarda nezazu». linkoak haren othoitzia enzunik, berehala igorri zian ainguru bat konsolatzera eta, gaua oro harekila iraganik borrokan, ainguriak erran zian Iakopi. «Dimitte me, iam aurora est», «Iakob, othoi, utzi nezazu, argi handia duzu». Baina Iakobek ezpaitzian oraino ainguriaren benediktionia ardiatsi, errapostu eman zeron: «Non dimittam te, donec benedixeris mihi», «Ez, ainguria, etzutut kitatu-

ko, non zuk niri zure benedikzione saildia eman artino».

Arima debota, Iakob saildu haren imitacionetan edukazu hon, zaude ferme oracionian, persebera ezazu hari, zure linkoaren benedikzione saildia obteni artino. Eztezazula imita leopard animal poltron hura, zoiñek bere ehizia kitatzen baitu, ezpadeza atrapa lehen iauzian. Kontinua ezazu koraioski zure oracionia; ialgiko zira burutan eta ohorez. Promesa eman dizu Iesus gure launak, nork ere perseberatuko baitu fineradrano, hura salbatuko dela: «Qui perseveraverit usque (in) finem, hic salvus erit» (Math. 10). Galdezazu linkoari haren gloriari eta salbamendiari eman diren gauzak; sar zite linkoaren gratian zure bekatiak kitaturik; atentione handireki egizu zure othoitzia; persebera ezazu zure oracionian eta, oracionia baita ene hirur prinzesa lehena, ala ziren gizona, ala ziren emaztia, prinzesa hark eginen zitu prinze eta prinzesa lurrian eta zelian: lurrian gratiaz, eta zelian gloriuz.

Arima debota eta penitenta: orhit zite humilitatia, baita obra hon orotan nezesario, edirenen duzula nahastekaturik gure prinzesaren laur

anderen artian. Eztezaopula hantik kanpoan xerka; han duzu segurki. Etzitala tormenta haren ezin edirenez, gure prinzesaren eta haren anderen gortian kaideran iarririk izeusiko duzu.

ORATIONIAREN INDARRA ETA BERTUTIA

Orationiak eztu solamente emaiten konsolatione handirik gure espirituari eta gure arimari, baina oraino badu indar meritatzeko, satisfatzeko eta inpetratzeko, komunski doktorek erakusten duten bezala. Horren arrazoiña da, zeren ialgiten gratian den gizonaganik, meritorio da, hala nola bertze obra honak oro; penal bada eta aspre, satisfatorio da esentialki; zoinbat demanda eta arrakestu bada, ordian inpetratorio da, zeren orationiari konbenitzen baita, eta ez berze obrer, inpetratzia.

Orotrat ere bata berziaganik separatzen bada, ahal date meritorio eta ez inpetratorio, hala nola gizon iustoak zerbait linkoari galdatzen dianian eta ezpaitu obtenitzen, ezelakoz eman

haren salbamendiari. Gisa hartan Apostoliak galdatu zian linkoari delibra lezan

Haragiaren tormentetarik, eta ezpaitzian ardiatsi bere demanda, zeren linkoak nahi baitzian tentatione hartan okupaturik egon ladin. Ahal date halaber inpetratorio, eta ez meritorio, hala nola gizon bekatoriak galdatzen dianian bere bekatiaren remisionia edo saildu batek zelian galdatzen dianian zerbait gugatik. Baina ezta posible den meritorio, non ezten satisfactorio. Disputa da Eskolan ahal datianez satisfactorio eta ez meritorio. Skotus subtilak dio bai eta S. Thomasek dio ez.

Orationiaren ofizioa honorable da eta saildiez eta Iesu Kristo launaz praktikatu izan dena. Plazer eta profetia handirik emaiten du haier orori, zoiñek debotki bere othoitziak egiten baitituzte: eritarzunak sendotzen ditu, ez solamente nork kre othoitzia egiten baitu, harenak, baina oraino norgati othoitzen du, harenak. Hargati dio zuhurak. «Fili, in tua infirmitate ne despicias te ipsum, sed ora Deum et curabit te» (Eccl. 38), «Ene semia, zure infirmitatian eztezazula zure buria mesperexa, baina linkoa othoi ezazu eta

hark sendatuko zitu». Zenturionaren orationiak haren semia sendotu zian, dizipulien orationiak Simonen amaginharebari eman zian osagarria. loandone lakuek dio fediarene orationiak eria sendotuko diala: «Oratio fidei salvabit infirmum» (Iacb.ult.).

Orationiak bizia luzatzen du, Errege Ezechiarri heldu zen bezala. Orationiak nehor bere etsaietarik delibratzen du. Baruch profetak hala dio: «Clamate ad Dominum et liberavit vos de manu principum inimicorum» (Baruch 44), «Oihu egizie launari eta hark delibratuko zutie prinze gaixtoen eskuetarik».

Orationiak bakia eta abundanzia emaiten du, dio Profeta Roialak (Psal. 131): «Fiat pax in virtute tua et abundantia in turribus tuis», «Egin bedi bakia zure bertutian eta den abundanzia zure torrietan». Hargati Simonek, Oniasen semiak, erraiten zian: «Da pacem, Domine, in diebus nostris», «launa, eman izagizu bakia gure denboran».

Orationiak gerlazko denboran emaiten du biktoria: «Cum Moises levaret manus, vincebat Israel» (Exod. 17), «Eskuak goiti Moisek alxatzen

zutianian, Israeleko populiak biktoria eramaiten zian».

Idortian uria erakarten du. Emazte ezteriler, haurrik eztutener emaiten du jeneratione, Sarak eta Anak porogatu dien bezala. Akusatione falsietarik eta kondemnatione iniustoetarik delibratzen du, Susanak zakian bezala (1 Reg. 1). Pensa-mendu gaixtoak eta demonioak akazaten ditu: «Hoc genus daemoniorum non ejicitur nisi in jejunio et oratione» (Dan. 13), «Demonio suerte haur ezin akazaten da baruraren eta orationia- ren moienes baizi», dio gure launak bere dizipu- ller. linkoaren kolera ematen du, zeliak erdira- tzen ditu, heldu zen bezala ohoin honari: «Hodie eris mecum in paradiso» (Mar. 9), «Egun enekin izanenitz ene paradusian», eta loandone Estebe lesu Kristen lehen martirari: «Ecce video caelos apertos et lesum stantem a dextris virtutis Dei», «Ikusten ditut zeliak erdiraturie eta lesus zuti bere Aitaren alde eskuiñian». Hori bera erran du gure launak: «lesu baptizato et orante, apertum est caelum» (Luc. 2), «lesus bateiatu zenian eta egin bere orationia, zelia erdiratu zen». Hala dio oraino Apostolu batek: «Multum valet deprecatio

iussti assidua» (Iacob. 5), «Balios da handizki iustoak ardura egiten dian orationia».

Arima debota eta penitenta, orationiaren edermenak eta indarrak izeusirik eta konsideraturik, ezpadezazu ohora eta maita eta enplega ardura-ardura zure etsai bisible eta inbisible ororen garaitzeko, eztakit zer egin, ez zer erran zutzaz, danieretan zirela baizi, zeluko zure parte hona galdurik, infernurat ioaiteko eta han sekulakoz damnaturik egoiteko. Ordu da minza gitian gure bigarren prinzesaz, zoin baita barura.

BIGARREN KAPITULIA BARURA

Zer den eta haren indarrak zer diren.
*«Humiliabam in ieiunio animam
meam». Psal. 34*

Baruraren definitione jenerala haur da: «ieiunium est abstinentia ab iis quae gustu percipiuntur», «Barura dela abstinentzia bat, zer ere ahoaren gozoari eman baitira, haietzaz oroz». Ahoaren gozoari eman diren gauzak: ian, edana eta medezinak. Ianak edekiten du gosia eta edanak egarria eta medezinak sendotzen gorpitzaren infirmitatia. Baruraren konplitzeko hetzaz oroz abstenitu behar dugu, zonbatere barazkaldu gabe edo ondoan gauza apurra edo iaten edo edaten ahal baitugu «per modum medicinas», «medezina anzo», eta ez «per modum nutritionis», «hazkurri anzo», edo estomaxaren flakatia edo buruko doloria dela kausa, barura hautse gabe.

Barurari doktorek emaiten draukote bertze definitione partikular bat: «ieiunium est abstinentia voluntaria a cibo iuxta ritum Ecclesiae», «Barura dela abstinentzia boluntario bat ianetik Eliza saindiaren ordonanzaren eta kostumaren arau». Erran du definitioniak abstinentzia ianaren respetus, zeren edanak ezpaitu barura hausten, maxima komunak erraiten dian bezala: «Potus non frangitieiunium». Endelgatu behar da guti eta sobreki edanak, zeren barur egunian nehor horditzen balis sobera edanik edo sobera janik, bi bekatu mortal kometi liro: bata hordikerias eta gormandizaz, eta bertzia baruraren haustiaz. Barur hon ororen regla segura eta iustoa da sobrietatia.

HIRU BARAU MOTA

Barura partitzen da hirur partitara: naturala, eklesiastikoa eta espirituala. Barur naturala da eguna hasten delarik gauherditarik gauherditar, noiz ere nehork ezpaitu deus hartu, ez ian, ez edan, ez medezinarik hartu. Barur hori nezesario

da iaun aphezzer bere meza erran artino, eta bertze persona laiko orori bere konfesione sakramentalala eginik bere komunione saildia egin artino, ezpada persona eria. Kasu hartan denbora oroz, ala barurik, ala ez barurik, ala medezina harturik, persona eriak rezebitzen ahal du komunione saildia frankoki bekaturik egin gabe.

Barur eziesiastikoa da definitione partikularian erran duguna: abstinentia bolontario bat iateko gauza orotarik eliza saildiaren maniaren arau; hala nola, garazuman zointan ezpaita permis, exkusa lejitimoz kanpoan, ez haragirik, ez arraulzerik iatia; eliza saildiak manatzen dutian besten bijilien barur egitia haragirik ian gabe, eta halaber irakoitz ostiralen haragiz abstinentzia egitia; horien ororen begiratzia bekatu mortalen penan, exkusa lejitimorik kanpoan. Hori da barur eklesiastikoa, zoiñen begiratzera obligatu baikira hain onsa, nola linkoaren manu saildien, salbatu nahi bagira; manatzen gutian bezala Iesus gure launak Eliza saildiari obediencia ekar dezagun damnatione eternalaren penan, erraiten diarik Ebanjelio saildian: «Si Ecclesiam non audierit, sit tibi sicut ethnicus et publicanus»,

«Ezpadu sinhesten Eliza eta hari behatzen eta obeditzen, halakoa, edukazu heretiko eta pagano».

Barur espirituala da, noiz ere arimak egiten baitu barur bekatu mortaletarik gabe eta linkoaren gratian bizi baita, haren maniak eta Elizarenak debotki eta relijioski begiraturik. Haur da barur noblia eta barur saindia, noiz ere gorpitzak eta arimak biek barur egiten baitute: gorpitzak biandaz eta arimak bekatuz; noiz ere gorpitza gizonak baruraren moienez gaztigatzen baitu eta mortifikatzen eta, arima bekatien abstinentiaren moienez ederturik eta purifikaturik, linkoari ohoroskatzen eta harekila unitzen baita arima debota.

Ezta deus ederragorik eziez gure bigarren prinzesa haur, barura, bi aldetarik konplitu denian: gorpitzaren eta arimaren aldetik. Gorpitzak baditu bere biandak, ian edanak, bizitzeko mundian; arimak ere baditu bere bianda espiritualak, linkoa baitan mundu hontan bizitzeko eta harekila entertenitzeko, zoin baitira pensamendiak etabere afektioniak. Pensamendu eta afek-

tione hurak gaixtoak eta maletiosak badira eta arimak hetzaz abstinenzia egiten badu, repusatzen eta akazatzen badutu, barur hona da eta saildia; baina pensamendiak eta afekzioniak badira hon eta saildu eta arimak hetzaz egiten abstinenzia, erran nahi dut, ez retenitzen barnerat, baina kanporat akazatzen eta repusatzen, hura date barur gaixtoa eta barur kriminela, edo, hobeki erran dezadan, hura date bekatian bizitzia eta linkoari gerlaren egitia.

Lehen barur hon haren egiliak ardiasten du linkoaganik gratia eta benedikzione, zeren erakusten baitu bere barurian linkoari eta Elizari bere humilitatia eta bere obediencia, eta barur gaixtoaren egiliak, ezpadeza kita bere urgillia eta bere bekatia, tiratzen du bereganat linkoaren kolera iustoa, zeren erran baitu Apostolu batek: «Deus superbis resistit, humilibus autem dat gratiam» (Iacob. 4), «linkoak superbioser gerra egiten diala eta emaiten bere gratia arima humiler».

BEKATU NAZKAGARRIA

Ezta deus hain haztiogarririk linkoaren aitzinarian, nola baita bekatia. Hargatik S. Louis Franziako Erregiak maxima eder eta saindu haur praktikatzen zian bere aktione orotan, bere gaztetarizunian hasirik hil artino, eta manu eta konseillu hon hura bere ordenian eman zian bere semiari eta koroaren ereter eta suzesor lejitimoari, zoin deihatzen baitzen Louis le Hardy: «Potius mori quam peccare», «Lehen hil, eziez bekatu mortal bat linkoaren kontra kometi». Kazimir Poloniako errege gazte batek arrapostu eman zian here medikuen abisaren eta konsultaren kontre: «Potius mori quam peccare», «Lehen hil, eziez bekatu mortalik egin linkoaren kontra». Medikuek hark nahi zuten Errege gazte hark bere plazerak andere batekila har litzan, bere osagarri korporalaren hobeki bere eritarizunian ardiasteko, baina prinze gazte eta debot hark arrapostu eman zian berehala jeneroski eta sainduki: «lehen hil eziez bekaturik egin», «Potius mori quam peccare».

Eudoxia, Arkadius inperadore handi haren emaztiak, egun batez igorri zutian bere anbasadoriak S. Krisostomari, zoin baitzen Konstantinopoles hiri handi hartako Archebesko dignia, mehatxuz eta rodomentadez betherik, elezan gehiago deus erran bere peredieku publikan haren aktio-
nen kontre biziaren penan. Archebesko saildu hark arrapostu eman zian anbasadorer: «launak, errazie zien prinzesari zesa dadin bere bekatietarik, nahi badu ni zesa nadin haren kontra minzatzetik». Anbasadoriak arrapostia gizon saildu harganik harturik, ioan ziren eta erran bere prinzesari: «Anderia, auherretan igorri gutuizu mehaxu egitera gizon hari; gizon hura eztuzu beldur nehoren ere, bekatiazen baizi: «Nihil ille, nisi peccatum timet».

S. Anselmak ere erraiten zian nahiago zela bekatu gabe inferniam sartu, eziez bekatiazeke paradusian: «Mallem purus a peccatis et innocens gehennam intrare, quam sorde pollutus caelorum regna tenere».

Aristotesek ere, zombatere pagano baitzen, bere Politikoa maxima haur obserbatzen zian: «Melius est mori, quam facere aliquid contra

bonum virtutis», «Hobe dela hilzia, eziez deus egitia bertutiaren kontre».

Arima debota eta penitenta, exenplu hotarik iuiatuko duzu zonbat linkoak bekatia hastio dian, eta nahi bazira zure barurak eta bertze zure obra honak ongi jin diren eta meritorio diren linkoaren aitzinian, aparta zite bekatietarik, sar zite gratian. Haur da barur espirituala, bekaturik ez egitia eta baruraren gratian egitia.

ZERTAN DATZAN BARAUA

Barura konsistitzen da bi pundutan. Bata da barnekoa eta bertzia kanpotikoa. Barnekoa da substanzian, kantitatan eta denboran; kanpotikoa da gratian. Substantia edo kalitatia da barur egunian haragirie eztezagunian, garazuman ez haragirik, ez araulzerik. Bertze bijilien baruretan kostuma jenerala da araulze iatia, baina ez haragirik. Ezniaz eta hantik egiten den iatekoaz denaz bezanbat, zoin komunski gorhia edo burroa deitzen baitugu, permis da leku orotan eta denbora orotan Franzian, Ispanian eta pro-

binzia orotan. Legerik ezten denboran, kostumak balio du legiak bezanbat, doktoren artian maxima komunak erraiten dian bezala: «Defficiente lege, consuetudo habet vim legis» (2. Q. 147, Arti. 8. ad tertiam). Zonbate Thomasek baitio garrezuman eztela permis eznia, Navarrus doktorak dio, lizan ordian kostuma garrezuman eznerik ez iatia, kostuma huradeskribitu bada berrogei urthez honat, permis dela iatia. Permissione edo debeku hori fundatzen da kostuman, zeren doktor batek erran dian bezala egiteko hortan «Mos populi mos Dei» (Cap. 21, Nu. 13), «Populiaren kostuma dela linkoaren kostuma».

Kantitatiak egiten eta desegiten ahal du barura. Sobre bada eta reglatu, jende perestien eta diskreten artian pratikatzen den bezala, egunian behin apaira onesbat eginik barura hondate; baina exzesibo eta disolutu bada, gorman ten eta hordien artian helzen den bezala, barurak guti balio ukhenen du. Den bethiere sobrietatia baruraren regla hona eta segura. Permis da oraino arratsian kolatione arhin baten egitia, guti nehork jaten et edaten dialarik. Noizpait, zeren apairia kristino fidelek arratsian egiten baitzu-

ten, zerbaiten goizian kostuma zuten hartzera «per modum medicinae», «medezina anzo», baina denbora hontan hartzen dugu arratsian zerbait «per modum nutritionis», «hazeurri anzo». Kardinal Kaiktanek dio arratsian kolationiak egin behar diala ogiareki solamente. Navarra autorak dio kolationian hartzen ahal dugula barura hautse gabe ogi, mahatzarno eta bi frutu suertetarik. Armilla eta Tinellus bi autorek aprobaten dituzte Errumeko kolationiak, zoin baitira soberaxe handi eta anple, zoin komunski deithatzen baitira «colatione romanac». Kardinal Toletek ere eztutu kondemnatzen, abusik ezpada, zeren kostuma hala baita Errumen eta Aita Saindiak toleratzen baititu dakialarik.

Horrible dira eta izigarri egun handien eta aberatsen artian egiten diren kolatione disoluciones bethiak: hirur, laur, zorzi, hamar, hamabi plat konfituraz, frutu honez betherik, eta hetzaz ezin eta ahal leher artino bere tripak betherik, ohorat ioaiten dira barur gaixoa plagaturik eta masakraturik. Ezta hori barur egitia, baina hori da baruraz, elizaz eta baruraren manazaliaz truffazia eta bere burien tronpatzia. Hori da Epiku-

rus eta Sardanapalen imitatzia, zoiñek bere dizipulier doktrina maradikatu eta profano haur bere eskoletan erakusten baitzien: «Ede, bibe, post mortem nulla voluptas», «lan zak, edan zak, hilez geroz ezta plazerik».

Denbora ere nezesario da barurian. Noizpait Apostolien denboran eta geros Elizaren hatsarrian, oren komuna apairiaren egiteko, barur egunian zen arratsian, besperen ondoan; gero egerdiaren ondoan oren bakoitzian; gero egerditan; gero hameka orenetan. Kardinal Toletek dio, oren batez edo bigez egerdi baino lehen. Egiteko hortan nehork behar du segitu bere herriko kostuma. S. Hieronimok dio baruraz minzo denian: «Unaquaque provincia abundat suo sensu et praecepta maiorum Apostolica arbitretur», «Probinzia eta herri orok badutu bere kostumak eta bere opinioniak». Eta S. Augustinek dio: «In his rebus, in quibus nihil certi statuit divina Scriptura, mos populi, mos Dei, et instituto maiorum pro lege habenda sunt» (in Epistola ad Casulanum), «Eskritura saindiak deus segurrik erraiten eztian gauzetan populiaren kostuma dela linkoaren kostuma, eta zaharren kostumek igaren behar

dutela legiaren pare». Hantik jin da proberbio zaharra: «Cum fueris Romae, romano vivito more», «Errumen izanian, egin zak Errumen bezala».

Navarrus eta Kaietanek diote orenaren antizipatzia eta arratseko kolationiaren kanbiatzia egerdiko apairiala, kausa razonable eta lejitimo gabe, bekatu mortal dela; baina Kardinal Toletek eta haren ondoan Doktor berriek diote antizipaturik ere orena eta kanbiaturik kolationia apairiala sordexian ere ezatekiala bekatu beniala baizi. Hirur punduk zerratzen du kanpotik barura oro; kalitatian, kantitatian eta orenian.

Barnetik barura konplitu igatekoz, nezesario da barur egilia den gratian, nahi badu haren barura, bertze obra honak bezala, den meritorio linkoa baitan. Orotrat ere, ala den gizona gratian, ala ez, egin behar du barura, kometi eztezan bekatu berri bat elizari zor dian obedientia- ren kontre, zoiñek manatzen baitu barura. Bertze alde obligatu da baruraren egitera, haragia- ren tentationen eta akulien bridatzeko. Obligatu da halaber baruraren egitera zeen, gero gratian denian, eztian hainbertze difikultate obra honen

egiteko. Obligatu da halaber baruraren egitera, hobeki bere bekatien remisioniaren eta haietzaz bere bihotzian kontritioniaren obtenitzeko. Hantekiki gizona obligatu da baruraren egitera, nahibada den bekatian, eta bertze obra honen ere bai, hobeki Inkoaren gratian sartzeraz disposatzeko eta han bere konsolationen eta plazeren linkoarekin hartzeko. Hori da S. Thomasen eta Tolet kardinalaren sendimendia eta hori da baruraren sailduki konplitzeko barnetik nezesario den bigarren pundia: barura konpli dezan gizonak linkoaren gratian eta karitatan.

BARUAREN XEDEAK

Baruarenen finas dira hirur. Lehenik harura ordenatu da haragiaren, odolaren tentationen eta mobimendu gaixtoen flakatzeko eta hotzeko. Deusek ere eztu gure haragia eta odola hanbat tristetzen mortifikatzen, nola ian-edanaren mutziak eta edekitiak. Hanti jin da proberbio zaharra: «Sine Cerere eta Bacho friget Venus», «Ogia eta mahazamoa gabe paillardiza hotz

dela». Hargati garazuma ordenatu da primaberen hatsarrian, zointan gure odola berotzen baita eta samurtzen, emalten gure arimari mila pena, milla tormenta, luxuriala eta bertze bekatietara eror eraziteko. Ordian baruaren moienez bridatzen da odola eta mortifikatzen.

Bigarrenian barura ordenatu da zeluko gauzen hobeki kontenplatzeko eta, gauza saindien gure bihotzian onsa konsideraturik, hobeki maitatzeko eta haien kontenplationian gure arimen salbamendiaren egiteko. Gure espirituak bere libertatia hobeki konserbatzen du gorpitza barur denian eziez, biandaz eta mahasarnoz beterik, iuiamendia eta sensu hona, gormandiza eta hor-dikeria dela kausa, galdurik dagoenian. Ordian ezta propi lurraren eta lurreko gauzen baizi, aberen pare. Barurak espiritual eta zerbait faizonez aingurien pare rendatzen gutu, hobeki gure lingoaren adoratzeko, maitatzeko eta laudatzeko eta, lurra kitaturik gur pensamendu ororeki zelurat kramaiteko.

Hirurgarrenian harura ordenatu da gure bekatien pena denboralaren mundu hontan ardiasteko. Segur da kulparen respetus, kontri-

tioniaren eta sakramendien moienez gizon bekatorkiak bere bekatien remisionia ardiasten diala, haren aldetik ezpada faltarik, zeren theologiaren maxima baita: «Sacramenta novae legis conferunt gratiam ex opere operato obicem non ponentibus», «Lege berriko sakramendiek emaiten baitute linkoaren gratia bekatore orori, bekatorearen aldetik espada faltarik», digneki presentatua badadi haien rezebitzian. Orotrat ere baratzen da oraino pena denborala, zoin behar baitu patitu eta satisfatu gizonak edo mundu hontan, edo purgatorioan bertze mundian. Barurak du indar haur, non satisfatzen baitu pena denboral hura. Eta Eliza saindiak baitaki purgatorioko penak, eta handi direla, eta mundu hontakoak haien respetus arhin eta mendre, ordenatu du barura, pena haien mundu hontan pagatzeko eta satisfatzeko. Mundu hontan deno gilzona, meritutzen ahal du: «Viator est in statu merendi», baina bertze mundian «Cessat tempus merendi», «ezin diro meritu». Barurak egiten du satisfazione pena denboralaz mundo hontan, zoin bertze mundian purgatorioan obligatu baitzen konplizera, hil izan baliz hura konplitu gabe, Eliza

saindiak barurareren hirut fin horik explikatu ditu ederki garazumaren hasarreko Mezaren prefazioan gisa hontan: «Corporali ieiunio vitia comprimis, mentem elevas, virtutem largiris et praemia», diolarik linkoari: «Barur korporalaz bizioak hiltzen eta desegiten dutuzu, bihoza eta espiritua goiti eramaiten, bertutia eta rekompensia emaiten».

BARUA HAUSTEKO LAU ARRAZOI

Bada hanitz kausa gizona barur egitetik eskusatzen eta dispensatzen dutenik. Doktoren opinionone komuna da laur partetan kausa hurak oro sartzen ahal direla, zoin baitira paubrezia, tribailia, infirmitatia eta ofizio espiritualak, obra miserikordiosak.

a. Jende pobriak behar dianian bere ogia bortaz-borta galdatu, ezpadu biltzen egunian behin apairu hon baten egiteko doia, ezta obligatu barur egitera; eta, ez ibilirik ere bortaz-borta, pobre bada eta ezpadu moienik apairu hon baten egunian egiteko, pobreki eta miserableki

bizi bada bere familiar, halakoa ere ezta tenitu barur egitera. Baina pobre izanik ere biltzen badu egunian behin apairu hon baten egiteko eta dian indar eta osagarri hona, tenitu da baruraren konplitzera. Hala dio kasuista hon ooren opinionia.

b. Tribaillia ere kausa lejitimoa da baruretik gizonaren dispensatzeko. Barura eta tribaillia estira adeskide bere artian eta biak algarreki ezin onsa egoiten ahal dira. Ez solamente gizon pobria, baina oraino gizon aberatsa bere ofizioan tribaillatzen den egunian, barura heldurik ere ezta tenitu barur egitera. Halaber tribaillia hartzen denian republikoaren edo jeneralki hiri baten edo probinzia baten profeitutan, hala nola gerra denboran, barur egunian tribaillatzen denian edo murrailen reparatzen edo, sua lothu bada hirian edo zoinbat exetan, haren hilzeko eta hiriaren konserbatzeko, halakoa baruretik dispensatia date tribaillia dela kausa. Silbester eta Tolet arkord dira gauza horietan.

k. Infirmitatia kausa iustoa da baruretik neho-
ren dispensatzeko. infirmitatia, Gabriel doktorak dio, laur gisatako ahal dela.

Lehena da «infirmetas languoris», noiz ere persona bat edo fiebrak edo bertze zoinbait eritarizunez aflijiturik baitago.

Bigarrena da «infirmetas complexionis», noiz ere persona bat ardura eritzen baita eta, ezpada zerbait ian eta edan, abstinenzia dela kausa, buruko eta estomakaren dolore handitara bertan erorten baita; edo hain sinple eta hain flako baita, non apairu bakoiz batez ezin hartzen baitu gorpitizak behar lukian sokorria eta hazkurria, baina borxatu baita biga ezpa hirur aldiz haien hartzera.

Hirurgarrena da «infirmetas aetatis», «adina-ren infirmitatia». Jende gaztiak 21 urthe ardiak artino eztira tenitu barur egitera, zeren adin hartara heldu beno lehen denboran, ian eta edan behar baitute bizitzeko eta handitzeko. Orotrat ere gauza hona eta onesta da jende gaztia ordu honez kostuma dadin zoinbat baruren egitera, amorekatik, adinak dutianian, ezteizan gero ediren sobera pena eta difikultate elizako prezeptoaren konplitzeko. Haboro, jende gaztia suiet bada paillardizala eta haragiaren obretara, obligatu dela barur egitera ez ukenik ere behar den

adina; ez elizaren manus, baina bai linkoaren manuz, «iure divino», zoiñek nahi baitu barur egin dezagun gorpitzaren eta haragiaren gazti-gatzeko, mortifikatzeko eta kruzifikatzeko, haren akulu, mobimendu eta tentatione gaiztoak jiten direnian haren espirituaren korronpitzera.

Jende zaharrak ere dispensatu dira 60 urthe ardiatsi geroz doktor ororen opinione komunian, zeren adin hartan berotarzun naturala flakaturik eta hozturik baratzen baita jende adin hartara heldu direnetan, erran dian bezala Profeta Roialak (Psal. 89): «Dies annorum nostrorum in ipsis septuaginta anni, si autem in potentatibus octoginta anni, amplius eorum labor et dolor», «Gure urthen egunak diren hirurogei eta hamar, lan handienak helzen badira lauretan hogeietara, haien denbora hantik harat eztate dolore eta trailla baizi».

Ioanes Vignerius Tholoseko doktor handi batek eta Kardinal Toletek diote egiteko hontan ezin emaiten dela regla segurik; hobena dela nork bere iuiamendia eta bere konzentia konsulta ditzan, ala den gaztia, ala den zaharra, indar badu bere osagarriari eta bere konzentiarari oge-

nik egin gabe goberna dadin. Bada zoinbait 50 urthetan flakoagorik, eziez bertze batzu 70 edo 80 urthetan. Kasu hartan nork bere konzentia du linkoaz landan bere iujia. Hon da duda hartan nehork konfesor zuhur bat eta prudentbat har dezan bere gida eta bere direktor.

Horrible da eta izigarri denbora korronpitu hontan ikusten duzun desordria zoinbait jenderen personan. Badute indar mahazarno honez orditzeko, bertzeren emaztiareki adulterio kometitzeko, bere konkubinez, amorez eta bere bilena tropeles, Turk gorte bat eta barruki bat eginik, mundu ororen aitzinian eskandaloski bizitzeko; eta eztute indarrik barur baten egiteko edo garezuman edo bijilian. Badute indar franko bonaxera egiteko, eta ez indarrik abstinenzia baten egiteko denbora debetatu direnetan. Beha bite zer erraiten dian profetak haien kontra: «Vae qui potentes estis ad bibendum vinum et viri fortes ad miscendam ebrietatem, et opus Dei non respicitis» (Isa. 5), «Maradikatu ziratela poxant zireteienak mahazarno edateko, bortitz eta azkar zireteienak nahaztekatzeko hordikeriaren zien

boluptatetan eta linkoaren obra mesperexatzen duzienak».

Bada bertze jende batzu, falsu, ipokrita eta biguot batzu, ezin eta ahal barur egitez bere buriak hiltzen eta desegiten baitituzte. Halakoak S. Hieronimok bere burien murtrier direla dio, eta konparatzen ditu bolureki, zoiñek bertzeren honetarik amoina egiten baitie: «De rapina holocaustum efficit, qui vel ciborum nimia egestate, vel manducandi vel somni penuria immoderate corpus affligit», «Halakoak ohoinkeriaz egiten du bere ohoreskia, zoiñek guti ianes, guti edates eta guti lo eginez bere gorpitza sobra aflijitzen eta tormentatzen baitu». Persona eriak eta flakoak, ezin egiten dialarik eta obligatu eztelarik, baruraren egitiaz hainbertze bekhatu egiten du, nola persona osoak eta azkarrak egiten ahal dialarik ez egitiaz. linkoa hon eta iusto da, eztu deus manatzen inposiblerik eta ez elizak kre. Ama hona denak bere haurrak eztutu kargatzen ezin egin ahal diroienez baizi.

Laurgarrena da «infirmitas conditionis». Noiz ere emazte bat izorra baita edo unhude, eskusa lejitimo du barurik ez egiteko, baina eztu eskusa-

rik bianden kalitatian; erran nahi dut, barurik ez eginik ere, bijiliak behar dutiala begiratu. Arima debota, laur pundu horietan da imfirmitatia, zoi-ñek persona dispensatzen baitu baruretik.

d. Laurgarrena «causa pietatis». Obra espiritualak eta obra miserikordiosak lejitimo dira nehoren baruretik dispensatzeko. Hurak dira peredikatzia, irakurtzia, konfesioen enzutia, ospitalen zerbutzatzia, leku saildien bisitatzia, errumes ebiltia. Horik oro egiten direnien edo ofizioz edo obedientiaz edo boto eginez lehendakie dispensable dira baruretik. Silbester autorak dio peredikuak ez eginik ere «ex officio», baina «ex devotione», profitable badira eta abantaillos populiaren, dispensatzen diala baruretik, zeren kasu hartan barurak ezpaitu hainbertze balio, nola peredikuak. Senharra eta emaztia ere eskusatzen dira baruretik, ezkonziaren karguak ezin egarten badira eta batak bertziari ezin rendatzen baditu bere eginbidiak barur egitian. Emazteak senhar faxos bat dianian eta ezin konserbatzen badu exenko bakia bere senharrareki barur egiten badu, kasu hartan «pro bono pacis» barurra hausten ahal du; baina senharra badu huge-

naut edo lutherano, lehen behar du bizia jokatu, eziez deus egin, ez barura hautse, fediaeren mesperexutan.

SEI KASU KONKRETU

Nork ere mutilak eta neskatoak barur egunian triuaila kraziten baititu, tribaillia luzatzen ahal bada eta hantik damurik ezpada jiten nabusiari, bekhatu mortal egiten du, zeren bere zerbutzarien baruraren hautsiaz kausa baita; baina tribaillia ezin luzatzen bada eta hantik damurik badu, ez nabusiak, ez zerbutzariak eztu egiten bekhaturik, barura zerbutzariak hausik ere.

Aita familiazkoak emaiten badu auharia eko bianda defendiaturik iatera bere haurrer edo bere zerbutzarier, haren gidan eta haren kargian direner, bekhatu mortal egiten du, zeren partizipant rendatzen baita haien bekhatian, harzatz hurak korrijitu merexian. Hala diote Paludanus eta Gabriel bi doktorek.

Tafernariak eta ostatu orok emaiten dianian bere ostatier barur egunian edo bijilian bianda

debetuzkorik iatera edo inportunutzen baruraren haustera, nahibada berak barur egin dezan, bekhatu mortal kometitzen du, zeren barur egin behar dian personari, barurari eman ezten biandarik emaitia, ezpaita permis.

Bertze jende batzu dira, zonbatere ezpaititute barur egiten, zeren dispensatu baitira, edo ezpaititute nahi egin, orotrat ere bere lagunak kumitatzen baitituzte auharitera eta baruraren haustera, agian ezpaizuten barura hauseko kumitu harzaz baizi. Jende hurak oro dira kausa hoiien bekhatiaz, eta «per consequent» bekhatu egiten mortalki.

Herri batetarik bertzera nihor ioaiten denian eta barur eguna den herri hartan eta ez hontan, tenitu deia hementik harat ioaiten persona, han barur egitera? Silbester doktorak dio, han egoiterra badoa, tenitu dela hanko baruraren egitera; baina hantik aitzinago badoa edo honat utzulze-ko bertan ioan bada, eztela tenitu hanko baruraren egitera.

Medezin barberek gogoia eman dezaten, ez emaitera atestatione falsurik ez handier, ez xipier, bianda debetaturik iatera garezuman, ez

bijilietan, bere arimak eta bertzerenak nahi ezpaitute periletan ezarri damnatione eternalian. Arima debota eta penitenta, barura baita gure bigarren prinzesa, hobeki ohora dezazun eta egin haren konsiderationian zure arimaren salbamendia, ditzaski laburski kontenpla haren indarrak eta meritiak.

BARURAREN INDARRA ETA BALIOA (BOST EXENPLU)

Barura prinzesa eder bat da eta poxant bat, molde honian egin badadi ber. Haren amorekatik linkoak populiak eta probinziak bere etsaien danieretarik delibratzen ditu, eta konserbatzen haien biziak eta honak.

Hala heldu zen Bethulia hirian. Holofernes Nabukodonosor inperadoriaren lotenent jeneralak setiatu zian Bethulia hiria, seietan hogeit hamar infanteria soldado eta hogeit hamar eta bi milla kaballeria, soldadorekin. Mundu guzia lotsaturik eta transaturik zagoela, baruka ordenatu izan da

Eliaxin Bethuliako iaun aphez handi haren manus. Hala dio Eskritura saindiak: «Clamavit omnis populus instancia magna et humiliaverunt animas suas in ieiuniis et orationibus» (Iudith. 4), «Humiliatu ziala populiak bere arimak eta bere gorpitzak baruraren eta orationiaren moienez eta oraino populiak oihu eta heiagora handirik egin ziala linkoari». Eliaxin linkoaren aphez handi hark populia segurtatu zianian haien othoiztiak exauditu izanen zirela, egon balite ferme bere baruretan, Iudith emazte alhargun sailda eta jenerosa hura ialgirik Bethulia hiritik, harturik lagun bere neskatoa bere edermen ororekin, alegia amoroskerias ioaiten zela Holofernesen ikustera, haren kanberan etzanik, Holofernes tirant hari bere dagua propiaz lepoa trenkatu zaukon; eta haren buria bere neskatoaren alzoan Bethuola eramanez, mundu oro salbatu zian bere aktioniaz, eta Holofernes buriaren despendioz haren armada handia konfusione handitan retiratu eta peritu, Bethulia hiria danier orotarik delibratu. Irakurtunahi dianak istoria, edirenen du gauza ederrik eta aitortuko mirakulu handi hura baruraren moienez egin izan zela.

Asuerus erregiak galdu nahi zian Mardokeus eta haren populia oro. Aman erregeren ministre eta insolent hark lanta erazi zian urka bat bero-gei eta hamar beso luze, Mardokeus miserable haren han urka eraziteko baina Aester ederrak egin zian bezain sarri barur, bere jende ororeki hirur egunez eta hirur gauetz, Asuerus erregiak bere sententzia kanbiatu zian eta Aman urka erazi Mardokeusen belian. Barurak salbatu zian Mardokeus inozent kriminela eta kondemnatu Aman kriminel insolente. Mirakulu haur barurak egin ziala ezta behar dudatu. Aester ederrak eman zian manu bere jender gisa hontan. «Non comedatis et non bibatis tribus diebus et tribus noctibus, et ego similiter cum ancillabus meis ieiunabo» (Ester. 4), «Eztezaziela ian ez edan hirur egunez, ez hirur gauetz; nik ere neure nes-kato ororekin barur eginen dut». Barur hura akabatu zen bezain sarri linkoak kanbiatu zian Asue-rus erregiaren gogoia. Kondemnazalia urkatu izan zen eta kondemnatia salbatu. Gure linkoak ezin hobeki erakusten zian renkontre hartan baruraren indarra eta meritia zonbat handi diren.

Ionas profetak Ninibe herri handi hari perediku egin zian linkoaren manuz, ezpalute penitentzia egiten eta linkoaganat konbertitzen, berrogei egunetan galdia poza. Profetaren botza populiak enzunik, ordenatu izan zen barur bat hirur egunez, ez erregek, ez handiek, ez xipiek, ez aberek, ez zutela deus ianen ez edanen. Barura ordenatu, konplitu eta exekutatu zenian, linkoak egin zian miserikordia eta gratia Ninibe hiriari. Hala dio Eskritura saildiak: «Praedicaverunt ieiunium et vestiti sunt saccis a maiori usque ad minorem et misertus est Deus super malitia eorum» (Iona. 3). Zer prinzesa poderosa eta askarra! Profeta Ionasek perediku batez eta jenden eta aberen hirur egunen barurak herri bat salbatu zian kondemnatuz geroz, zointan baitzen gutiena sei ehun mila arima.

Tobias saildiaren librian ageri da ainguru Rafaelek zonbat estima egiten zian baruraz. Bi Tobias aita semek mila gratia eta mila fabore rezebitu zuten ainguriaren aldetik, zoin baitzen estali eta bestitu gizon gazte baten formaz. Istoria luze da eta ederra. Irakurtu nahi dianak edirenen du han gauza ederrik eta mirakulosik. Noiz

ere izan baitzen kestione elgarganik parti eta separa litian, semiak erran zian aitari: «Ene aita, zer eginen dugu gizon gazte honzatz? Iusto duzu zerbait rekonpensa eman dezagun hari dutugun obligatione handier. Ni gidatu nu neure exetik Mesopotamia herrirat. Hantik hara gidatu nu neure exerat. Emazte aberasbat eta linkoaren beldurrian bizi den bat eman draut. Arraiñ handi batek iretsi eta deboratu nahi bainundian, harganik delibratu nu. Sara neure esposa mezatu nuien lehen gauian, demonio kruel batek itho eta sufokatu nahi bainundian, harganik kre salbatu nu. Zuri ere, zure begietako argia eta bista galdu baizundian, remetitu draulu, sendotu zutu. Zer ezagutee eta rekonpensu eginen dugu horren gaiñian?». Bi aita semiak arkord baratu ziren, behar zutela bere honen erdia presentatu bere hongu egiliari: «Ut dignaretur dimidiam partem omnium quae attulerant acceptam habere». Ainguriak enzun zianian haien oferimendia, erran zian bi aita seme haier: «Benedika eta lauda eza-zie zeluko eta lurreko linkoa, zeren hanbat gratia

eta miserikordia. Nik eztut zien honen, zien urhiaren, ez zilharren beharrik: «Bona est oratio cum ieiunio, et eleemosyna magis quam thesauros auri recondere», «Egin ezazie oratione, barura eta amoina. Hobe dira hurak, eziez urhesko thesauren gorderik edukitia». Ainguriak bi Tobias saildiak laudatu zutian eta gomendatu gure hirur prinzesae eta eman krakustera barura, baita bien artian, nezesario dela orationiari eta amoinari, oso eta konplitu izatekoz. Dezagun erran barurak indar eta botere handia diala, ainguriak harzatz hanbat estima egin dianian, bi Tobiaz aita semen aitzinian heganik partitzeko orenian.

Iesus gure launak, aingurien eta gizonen erregiak, arrapostu eman zian bere apostolier, ezin sendotuz lunatiko bat plaiñus baitzaudian: «Hoc genus daemoniorum non eiicitur, nisi per orationem et ieiunium» (Luc. 7), «Ene apostoliak, demonio suerte hori ezin akakzaten da orationiaren eta baruraren moienez baizi». Demonioen etsaia eta azotia bada barura, gure launak erran

dian bezala, kofesatu behar da baruraren indarra eta balioa handi dela gure etsai bisible eta inbisible ororen kontre. Hargati gure launak berrogei egunez eta gaez desertian barur egin zian guri exenplu emareiteko, gure tentationiak baruraren moienez garaitu behar guntiala. Haren imitacione saindiala Moisek ere Sinaiko mendian berrogei egunes eta gaez barur egin zian, linkoaren legiaren dignekiago han berian errezebitzeko (Exod. 24). Israeleko Populiak, desertian egon zeno, lur prometatiala hobeki helzeko berrogei urthes egin barur eta ez ian deus, egunian behin zelutik erorten zen mana poxin bedere baizi (Exod. 16). Eta nork barura hause baizuten, punitu izan ziren rigoroski, S. Ambrosiok remarkatu dian bezala. Eta profeta roialak dio rebel hetzaz: «Adhuc escae eorum erant in ore ipsorum et ira Dei descendit super eos et occidit pingues eorum» (Psal. 77), «Rebel gormant haien ahoetan ziren haien biandak eta linkoaren kole-ra ikusi da haien gainera». Helias profetak ere hauspian ogi opil poxin ianik, barur egin zian

berrogei egunez eta berrogei gauetz Orko mendi hartara helzeko (Reg. 3,19).

GARIZUMA ONA DA

Eztira behar sinhetsi Calvin eta Luther, bi heretiko hordi, gormant eta insolentak, eta haien dizipulu obstinatiak eta maradikatiak, zoiñek ezpaitute sinhesten garazumarik. Eliza saildiak eluke hartu karga handi haur, garezuman barur egiteko eta abstinentia, ezpalu garezuma erakusi Espiritu saildiak, apostoliek eta Elizak. S. Hieronimek dio: «Nos unam quadragesimam ex traditione Apostolorum toto anni tempore nobis congruo ieiunamus» (In Epist. ad Marcellam), «Garezunbat urtian behin apostolien traditioniak erakusirik barur egiten dugu». S. Ignatius martirak epistola baten dio, garezuman ordonanza loandone loane Ebanjelistaganik ikasi ziala. Minzo da gisa hontan: «Dies festos nolite inhonorare. Quadragesimam vero nolite pro nihilo habere, imitationem continet Dei conversationis», «Bestak eztizaziela desohora eta garezuma

eztezaziela mesperexa, zeren linkoaren konbersioniaren imitationia erakusten baitu».

Garezuma Apostoliek ordenatu dute hirur finetara. Lehenik, Iesus gure launaren baruraren ohoretan, amorekatik ahal bezanbat haren konforme gerta gitian. Bigarrenian denboraren dexemak linkoari renda ginzan. Horren gainian erran du S. Gregoriok: «Ut qui toto anno nobis vivimus, auctori nostro in eius decimis mortificemur», «Amorekatik, urte orotan guregati bizi baikira, gure krezalia baitan haren dexemetan hilik egon gitian». Hirugarrenian, zeren hantik abantaila handirik retiratzen baitugu, bekhatiak hilzen eta korrijitzen, espiritua linkoaganat eramaiten eta alxatzen, bertutia eta rekompensia ardiasten.

GORPUTZA ZIGORTU BEHARRA

Enfin, arima debota eta penitenta, barurari konklusioa eman dezadan. Konsidera ezazu gorpitzez eta arimaz gizona konposatu baita, arimak eztu deus hain partida handirik, nola gorp-

tza. Gerlan beti bizi dira; gorpitza bada insolent eta urgilluxu, gaztiga ezazu, korriji ezazu baruraren moienez, ordian dukezu arima burzagisa eta gorpitza neskato, iusto den bezala. Hala ari zen Apostolia: «Cum infirmor, tunc potens sum», «Noiz ere ene gorpitza baita flakoenik, ordian da ene arima azkarrenik». Gorpitza dela etsai arimaren eta gerra egiten drola, ezta dudarik; han da gure penarik handiena. Apostoliak guk batbederak bezala borogatu zian gerla haur, erran dianian: «Caro concupiscit adversus spiritum et spiritus adversus carnem», «Haragiak egiten du gerra espirituari eta espirituak haragiari». Eztugu ukhenen koroarik zelian, ezpagite konbati jeneroski lurrian: «Non coronabitur, nisi qui legitime certaverit», dio Apostolu hark berak. Har zazu barura zure soldado eta zure lagun haragiaren kontre; biktoria eta trionfa zure aldetik izanen dira.

Evagrius personaje saindu bat, Thebaides herriko desertietan bizi zen bat, egun batez reproxatu izan zen: zergatik hanbat barur egiten zian, zergatik hanbat mortifikatzen zian bere gorpitza. Errapostu eman zian: «Etsai batek

gerra egiten draut eta nik ere hari bai; geldi bedi niri gerra egitetik, eta ni ere geldituko niz»: «Quiescat ille, inquit, et ego quiescam». Arrazoin zian erimita saindu hark zure haragiak gerla egiten drauzuno, egiozu zuk hari; bertzela galdu zira, eta zeren hark zuri bethi gerla egiten beitrauzu, egiozu zuk ere denbora oroz hari.

S. Hilarionze bere gorpitza asto bat deitatzen zian eta erraiten zaukon: «Astoa, eztuk ukhenen lasto baizi iatera; gosez hilzera nauhut utzi; ezta koraiarik, niri ustikaturik emaiteko?», «Faciam ego, aselle, ut non calcitres; paleis te nutriam et farne te conficiam?». Saindu hura Iesu Kristen soldado fidela zen; bazakian bianda friantek eta mazarno honak odola pitzen eta samurtzen ozutela; hargati zian recours barura eta bianda hotz eta grosier zirener, haragiaren edukiteko bethiere esklabo eta kaptibo.

Arima debota eta penitenta, imita izazu bi ermita saindu bere abstinentietan, eta ordian aitortuko duzu barura, baita sekont prinzesa, arma honik dela debruaren, mundiaren eta haragiaren kontre. Ordu da bisita bat eman dezagun gure heren prinzesari, zoin baita amoina, eta iku-

sirik haren edermenak eta haren indar handiak, iunkta dezagun bertze bi prinzesekiela, zoin baitira orationia eta barura. Bata bertziaganik bere-tzerik, oro eder dira eta maitagarri, baina hirurak elgarrekila iunto direnian, ezta deus mundian hain ederrik, ez hain bortitzik: «Funiculus triplex difficile rumpitur», «Korda bat hirur orepilo-estekaturik dagoenian, nekez hausten da». Hirur prinzesa hoiek ere elgarrekila direnian, inprenable dira eta inbinzible.

HIRURGAREN KAPITULIA ZER DEN AMOINA

nola eta noiz eman behar den,
zer den haren indarra eta bertutia.

*«Sicut aqua extinguit ignem,
sic eleemosina extinguit peccatum»
(Ecles.3)*

Prinzesa ederra da eta noblia amoina, zelian eta lurrian, ongi jina linkoaz eta gizonez maitatia; lur hona; bere iabiari bere tribaillaren rekonpentsia segurki eta abundanzia handireki emaiten diana; zuhainze hona; frutu honik baizi, falsurik iagoiti, eman ez tiana, molde honez eta linkoaren amorekatik egina denian.

Eskolaren ainguriak S. Thomas doktorak definitione edo deskriptione haur emaiten du amoinari: «Eleemosina est actus misericordiae, quo datur aliquid indigenti ez compassione propter Deum» (2.2.Q.32, Art. I), «Amoina dela miskrikordiazko akto bat, zoiñen moienez nehork

emaiten baitu zerbait beharrari konpasionez lin-koaren amorekatik». Eta zeren miserikordia baita karitatiaren aktoaren efeto bat, hargatik amoina deihatzen da karitatiaren aktoa, miserikordiaren moienez argira ialgiten dena.

S. Augustinek minzo denian miserikordias edo amoinaz manera hontan representatzen du: «Quid est misericordia nisi alienae a miseriae quaedam in nostro corde compassio, qua utique si possumus subvenire compellimur?», «Zer da miserikordia edo amoina, guri lagunaren miseria eta praubeziaz gure bihozian konpasione hartzia baizi, zoiñen konsiderationiak obligatzen baikutu hari aiutu edo sokorri emaitera, ahal badezagu?».

Eta nola gure lagunaren miskriak baitira bi suertetako, korporalak eta spiritualak, hala hala amoinaren menbriak dira bi gisatako, korporalak eta espiritualak. Korporalak dira zazpi: 1. gose direnen bazkatzia; 2. egarri direner edaten emaitia; 3. buluzgorri direner estalki emaitia; 4. kap-tiboen erostia eta raxetatzia; 5. erien prisioneren bisitatzia; 6. peregrinen eta errumesen ostata-ztia; 7. hilen ehortzia. Zazpi obra miserikordios

edo amoina korporal horik konprenitu dira bersu honetan:

«Visito, cibo, poto, redimo, tego, colligo, condo»

Euskaraz gure lengajian erran nahi baita: bisiateen dut, hatzen, emaiten edatera, raxetatzen, estalzen, ostatzen, ehortzen».

BEHARREZKOA DA

Amoina edo obra espiritualak dira halaber zazpi: 1. bezeatoriaren korrijiteka; 2. ignoranten erakustia; 3. dudatan direner konseillu honik emaitia; 4. nork gure lagunaren salbamendiagatik linkoaren othoitzia; 5. afljitiien eta deskonsolatiien konsolatzia; 6. iniurioen eta afrontien patienki sofritzia; 7. etsaier gogo honez linkoaren amorekatik barkatzia. Zazpi amoina espiritualak konprenitzen dira bersu honetan:

«Consule, castiga, solare, remitte, fer,
ora».

Haur S. Thomasen eta Bellarminus Kardinal handi haren eta bertze doktor handien doktrina eta eskola.

Amoina gisa hontan representaturie, bada manu eta prezepto beharrari amoina egitera, badugu nontik, bekatu mortalen penan. Eskritura saindiak dio: «Qui obturas aurein suam ad clamorem pauperis, et ipse clamavit et non exaudietur» (Prov. 21), «Nork ere bere beharria tapatzen baitu eta zerratzen paubriaren oihiari eta heiagorari, halakoak oihiu egingen du eta haren oihi ezta enzun izanen». Pasaie hontarie arrazoin haur idokiten dugu: nork kre zerbait punitione rezebitzen baitu linkoaganik, hark zerbait bekatu egin du zoinbat manu edo prezeptoren kontre; bada amoinaren pobriari refusajalia linkoak punitzen du, zeren ezpaitu nahi enzun, baita pena handi bat; bekatu egiten du beraz zoinbat manuren kontre, izoiñek obligatzen baitu amoina egitera, eta manu hura ezta bertzerik amoina egitia baizi.

Eskritura saildiak dio oraino: «Qui habuerit substantiam huius mundi et viderit fratrem suum necessitatem habere et cluserit viscera sua ab eo, quomodo charitas Dei manet in eo?» (Ioan. 3,17), «Nork ere ikusiko baitu bere laguna beharrian dela eta bere sokorria hari ezpaitu emanen, nola linkoaren karitatia eta amorioa harekin date?». Haur da loandone loane Apostoliaren doktrina. Hementik arrazoiñ haur berririk ialgiten da: zer ere mundu hontan ezpaita iunto karitatiari bezeatu da; amoinaren refusa ezta iunto karitatiari; bekatu da beraz; baina bekatu oro da manu eta prezepto zoinbaten hausia eta transgresionia; bada beraz manu eta prezepto amoina egitera.

Ebanjelio saildiak gehiago erraiten du pundu honzatz beraz: azken iuiamendu jeneralian, noiz ere linkoaren semia jinen baita hilen eta bizien sekulakoz iuiatzera, erranen diala arima maradi-katier eta kondemnatier: «Discedite a me, maledicti, in ignem aeternum. Esurivi enim et non dedistis mihi manducare» (Math. 26,25), «Maradikatiak, aparta ziteste eneganik; izaniz gose eta eztrautezie eman iatera». Hementik oraino kon-

klusione eder eta lejitimo haur ialgiten da: nor bere refusatzen baitu amoina emaitera, bekatu egiten du mortalki eta kondemnatia da. Bada beraz manu eta prezepto amoina egitera.

Bi puntu nezesario dira eta kontsideratu behar dira amoinan: emailia eta rezebizalia. Emailiak ezpadu nontik eman, ezta tenitu emaitera: «Ad impossibile nemo tenetur, ideo imposibile non datur lex» (De regula iuris), «Gauza inposibliaren egitera ezta nehor obligatzen ahal dianik». Emailiak ere ukenik nontik eman, behar du kontsideratu bere doia «in individuo», eta gero «statui suo necessaria», bere konditionari eta kalitatiari nezesario diren gauzak. Hantik harat deus bada, obligatu da paubriari amoina egitera bere nezesitate handian, bere damnationiaren penan. Legia eman du gure Iesus launak: «Verumtamen quod superest, date eleemosynam et ecce omnia munda sunt vobis» (Luc. 11), «Zien doiaz kanpoan, egizie amoina, eta gauza guziak xuri, garbi eta xahu izanen dira zienzat». Leku hontan gure launak manu egiten du fariseu gaixtoer amoina egin lezaten, bizia eta bestimentia reserbaturik, nahi balira bere bekatietan

rik purgatu eta xahatu. Hala explikatzen du Maldonatus doktor handiak.

Apostoliak ere Thimotheus bere dizipularen lehen letran manu haur ernaiten paukon: «Divitibus huius saeculi praecipe bene agere, divites fieri in bonis operibus, facile tribuere, communicare» (1 Tirnoth. 6, 17), «Lurreko iaun handiak eta aberatsak mana izatzu onsa egin dezaten, obra honetan aberatz ditian, bere honetarik gogo honez eta alegeraki beharrer parte egin dezaten eta komunika bere honak beharrer». Ageri da hantik Apostoliaren sendimendia dela, bere doiaz kanpoan, bere honak behar ordian beharrer distribua ditzen. Bada doktor graberik eta szabantik erraiten duienik, bere bizitzeko eta beztitzeko nezesario diren gauzetarik ere nehor obligatu dela paubrer amoina egitera. Hori hala bada, nehor dobleki obligatu da bere doiaz kanpoan dian honetarik beharrari hongu egitera.

Bigarren pundia da amoinan harzaliaren nezesitatia eta beharra, Extremitate handi hartan nehork, dialarik, ezpadu sokorritzen paubria bere honetarik, bekatu mortal kometitzen du eta damnatia da. Sensu hortan erran du S. Ambrosio

iaunak: «Pasce fame morientem et si non pavis-
ti, occidisti», «Goses hilzera doena bazka ezak,
eta ezpaduk bazkazen, hil duk».

Hargatik S. Thomasek dio nezesitatiaren arti-
kulu hartan permis dela fraide bati epastera pau-
briaren salbatzeko. Horren arrazoiña da haur:
noiz ere honen repartitionia egin izan baita
«communi gentium consensu», jende, populu
eta natione ororen konsendimendu jeneral
batez, batbederak akisitu du luzen zibil bat eta
proprietate bat bere honetan, «ius civile et pro-
prietatis»; baina paubria erorten denian azken
nezesitate artikulu hartara, biziak doakonian,
«iure naturali» honak oro komun direla eta zuzen
zibil hura eta proprietatia suspenditzen direla
eta zuzen naturalak, «ius naturale», eramaiten
diala abantailla eta gehientarizona.

Ebanjelio saindian eree irakurten dugu gure
launak eskusatu zutiala bere dizipuliak zoiñek
sabato egunian gosiak obligaturik bertzeren
elgian ogi burien trenkatzen burien hasi baitzi-
ren bizitzeko. Phariseu gaixtoak haren kontre
murmuratu ziren berehala: «Discipuli tui faciunt
quod non licet facere sabbatis» (Math. 22),

«Zure dizipuliek egiten dute sabbato egunian (baitzen denbora hartako igandia) permis ezten gauza». Gure launak errapostu eman zien iudu haier bere dizipulien faboretan: «Eztuzieia irakurtu Dabid erregiak ere propositionesko ogiak izan zutiala nezesitacion, zointarik iatera ezpaitzen permis aphezer baizi?, «quos non licebat edere nisi solis sacerdotibus». Eta finian erranzian han berian: «Dominus est enim Filius Hominis etiam sabbati», «Gizonaren semia orobat iuna da sabato egunaren». Erakustera emaiteko fariseu eta iudu gaizto haier igandian orobat permis zela tribaillia eta bertzeren honetik hartzia gosiaren eta nezesitate handiaren artikulian.

Dabid erregia egun batez gosiak honkiturie ioan zen Akimelek iaun aphez haren erideitera eta hari erran: «Deus baduzu, ezkietan, bors ogi edo deus baduzu idazu iatera», «Nunc ergo si quid habes ad manum, vel quinque panes, da mihi, aut quid-quid inveneris» (1. Reg. 21). Aphez saindu hark errapostu eman zian Dabid erregiari: «Non habeo laicos panes ad manum», Eztizut eskietan ogi komunik, persona laikoer eman denik». Orotrat ere ikusirik haren nezesita-

te handia, eman zeron propositionesko ogi sanktifikatu hartarik iatera, zonbatere ezpaitzen permis ogi sakratu eta sanktifikaturik iatera, iaun aphezer baizi: «Dedit ergo ei sacerdos sanctificatum panem». Erakustera emaiteko nezesitatan gosiak eztiala legerik, zuzen zibila zesetzen dela eta zuzen naturalak botere oro diala, eta kasu hartan hartzia eta emaitia hon orotarik permis dela.

Bi puntu hoietan zerratzen da amoina: emailiak badu nontik, hartzalia, baita paubria, bada biziaren danierian, gosia dela kausa emailia obligatu da paubriari amoina egitera bekatu mortalien penan. Baina denbora hontan «in foro externo» iustitia denboralak epazlia puni liro, zeren mila desordre eta eskandala kausa bailiro populiaren artian; zonbatere «in foro interno», linkoaren aitzinian eta kofesioezko tribunalian, extremitatian dena, ebatsirik ere, iustificatu belizate. Bada hanitz feneant, laxo, auher, eztakuria hartan bolerian bizi baltira; halakoek azotia, galera edo urkabia lehen meritutzen dute, eziez amoina.

NORK BERETIK EGIN BEHAR

Nahi badu nehork amoina den hon eta meritorio, bere hon propitik egin behar du eta ez bertzerenetik, ezpada azken extremitatiaren artikulua, Zointan honak oro baitira komun. Hala dio S. Augustinek: «Quidam male intelligendo rapiunt res alienas, et aliquid inde pauperibus largiuntur, et putant se facere quod praeceptum est; intellectus iste corrigendus est, non enim eleemosynae faciendae sunt de alieno, sed de iustis laboribus unusquisque eleemosynam facere debet» (in Lib. de verbo Domi. in monte), «Jende batzuk gauzak gaizki endelgaturik bertzeren onak arrapatzen dituzte eta hantik zerbait amoina paubrer egiten; endelgamendu horrek korrijitu behar du; eztira egin behar amoinak bertzerenetik, baina batbederak amohina egin behar dute bere triballatu iustoez akisitu eta irabazi diren honetarik». Zuhurren Erreginak dio, nork ere sakrifizio bat ahoreskatzen baitu paubren substantiatik, hala-koa konparatu dela borreu bati, zoiñek semia

sakrifikatzen baitu aitaren aitzinian: «Qui offert sacrificium de substantia pauperum quasi qui victimat filium in conspectu patris» (Ecles.34).

Ezta egin behar amohina gauza hetarik, zoin sujet baitira restitutioniari, zeren hurak bertzerenak baitira eta ez guriak, eta bertzerenetik egiten den amohina ezpaita hon. Baina hon haren akisitionia bada iniustoa eta deshonestoa hanbat emailiaren nola harzaliaren aldetik, hala nola simoniaz irabazi diren honak, kasu hartan hon haiek enplegatu behar dute amoinatan; akisizaliak ezin bere konserbatzen dutu, zeren bertzeren honak baitira; ezin rendatzen du emailiari, zeren emailia indigne rendatu baita haien gehiagoko poseditzeko, bere simonia dela kausa. Zer izanen da beraz hon haiez? Borxatu da haien akisizalia haien emaitera eta distribuitzera paubrer eta bertze obra pioetan. Hala dio Eskolaren ainguriak, S. Thomasek, eta Balentia doktor handi hark.

EDONORI EGIN BEHAR

Amoiak egin behar du indiferentki beharrian eta nezesitacion diren orori, ala diren iusto, ala diren gure etsaiak, ala diren gure adeskidiak. Hala dio Eskritura saindiak: «Si esurierit inimicus tuus, ciba illum; si sitit, potum da illi» (Rom. 12), «zure etsaia gose bada, emozu iatera; egarri bada, emozu edatera». Hala egiten dugularik imitatuko dugu gure Aita, zeluko eta lurreko lin-koa, «zoiñek bere iguzkia ialgi eraziten baitu eta itzal eraziten Orienten eta Ozidenten, honen eta gaixtoen gaiñian, eta euria ieux eraziten iustoen eta iniustoen gaiñian»: «Qui solem suum oriri facit super bonos et malos, et pluit super iustos et iniustos» (Math. 2).

Iduri da Eskritura Saindian eztela egin behar hongirik ez amoinarik iustoer bai, baina ez iniustoer. Hala dio zuhurak. «Benefac iusto et invenies retributionem magnam; da misericordi et ne suscita peccatorem; da bono et ne receperis peccatorem; benefac humili et ne dederis impio» (Ecles. 12)», «Egin zak ongi iustoari eta edirenen duk rekonpensu handi bat; miseri-kordiosari

eman zak eta bekatoria eztezala rezebi; eman zak honari eta bekatoria eztezala ostata; egin klak ongi hunbliari eta eztejala eman gaixtoari».

Haur da Wiklefus heretiko infame haren opinionia, Thomas Baldensis autor handi hark hartatz raportatzen dian bezala (Tom. 3, Lib. 3, Cap. 91); baina falsuki eta gaixtoki infame hura minzatu izan da renkontru hontan eta hala kondemnatu Elizaz (In Concilio Constantiensi); eta loanes Hus, haren dizipulia, eta hura, biak bizirik erre izan ziren. Opinione gaixto eta falsu horren arrapostia manera hontan emaiten da. Salomonek erraiten dianian eztela behar eman amoinarik, ez ongirik egin iniustoari eta bekatoriari, endelgatzen da bekatoriari bekatore bezala, amoinaren moienez bekatian egoiteko eta entertenitzeko, eztela eman behar amoinarik; baina gizon bezala eta Iesu Kristen menbru bezala eman behar dela iniustoari amoina, iustoari bezain onsa, zeren amoina haren medioz natura humanoa, zoiñen menbra baita iniustoa, sokorritzen eta sustengatzen baita. Haur da Eskolaren ainguriak (Art. 9, ad I.) S. Thomasek eta haren

ondoan doktor hon orok emaiten dian arrapostu hona.

EGITEAN EZ ERDEINA POBREA

Amoinaren emaitian paubria eztezazula reproxa bere paubrezian eta haren bihotza eztezazula triste renda eta afliji, zeren bere miseriak aski aflijitzen dizu eta triste rendatzen. Hala manatzen zuen Salomonek: «Ne exasperes pauperem in inopia sua et cor inopis ne afflixeris», «Zure beharria paubriari tristetia gabe presta ezazu; paubren konpañian hel zitianian, kortes eta bihozbera erakus zite». Hala dio hark berak: «inclina pauperi aurem tuam sine tristitia, congregationi pauperum affabilem te facito» (Ecles.4).

Eman gogo duzuna emazu bertan eta alage-raki; emaiten ahal duipuna eztezazula luza eta, diferi gerotik gerora, egunetik egunera; ezteipazula erran beharrari: «Retiradi gaur, jin adi bihar, ukhenen duk bihar». Hala dio hark berak: «Ne dicas, vade, cras tibi dabo» (Ecles.

11). «Bertan emaiten dianak, berritan emaiten du»: «Qui cito dat, bis dat». Franzesak ere badu proberbio haur: «Il vaut mieux un tien, que deux tu l'auras»», «To batek gehiago balio diala, eziez bi ukhenen duk». Apostolu handiak dio, alegera-ki emaiten diana eta ez borxas, ez eta tristetiaz, gure linkoak maite diala: «Hilarem datorem diligit Deus, non ex tristitia aut necessitate» (1. Corinth. 9).

ARRANOA BEZALA

Arima debotak eta penitentak imitatu behar du arranoa, xori ororen erregia. Hark bere butina hartu dianian eta hanti bere doia ian, zer ere res-tatzen baita, hura oro haren ondoan jiten diren xorier emaiten du eta distribuatzen. Arima libe-ralak ere bere doia begiraturik, bere ian-edana eginik, bere beztitzekoa reserbaturik, gaiñelati-koa oro lesu Kristen paubrer emaiten du, irabazi-rik egun batez linkoaren aitzinian, noiz ere haren tribunal iustoala haren arima presentatuko baita.

Aiztoriak oro iaten du edo gordatzen; abariziosak ere oro iresten du edo gordatzen, bere lagunak, lesu Kristen menbrier, parterik eman gabe. Hargati dio Apostoliak: «Avari non possidebunt Regnum Dei», «Abaritiosae ez tiala ukhenen parterik linkoaren resuman».

Leoiñak ere, baita animale ororen erregia, bere ehizia eta butina hartu dianian, hantik nahi diana iaten du eta garaitikoa lagunak emaiten. Gizona baita lurrian kreaturen erregia, bere buria onestki entreteniturik eman behar du resatzen Kaukona bere lagun paubriari; ordian date lesu Kristen diszipulu dignia.

Otxoa, baita animale goluta eta gormanta, ahal diana oro iresten du eta deboratzen. Hala dira egunko egunian hanitz jende poxant eta aberatz; bere honak, bere arrandak iaten, edaten, hurtzen eta enplegatzen dituzte otxoan pare bere gormandizetan ordikerietan, danzetan, prozesetan, paillardizetan eta adulterioetan; enfin bere boluptate saxietan, Elizer, ospitaler, konbentier, alhargun paubriari, haurzurtzari, paubre ahaleorrari parterik, ez erdirik eman gabe.

Nola nahi zira halakoen kretzian gure linkoa den zelian miserikordioz eta liberal, hurak ipan direnaz geroz lurrian hain kruel, abarizioz, eta bihoz gogor paubren kretzian, zoin baitira lesu Kristen menbriak? Nola nahi zira lesu Kristok, baita paubren buria eta xefa, halakoak maita ditzan, haiek paubriak, baitira haren menbriak, hanbat hastio badutie eta hanbat kruelki tratatzen?

HIRU EXENPLU

Kostuma eta karitate eder bat pratikatzen zian bere denboran Mosde Pernon azken hilaren aitak, zoin hirur erregeren denboran izan baita agian Franzian zen iaunik handiena eta zoiñek Duk de Kandale, Duk de la Balete eta Kardinal de la Balete bere hirur semen eta bere personan ukhen baitu ohore hori, non laur kordon blu kolpu batez bere familian ikusi baititu eta zoin infanteria franzasaren Kolonel Jeneral eta Gienako gobernadore hil izan baita. Iaun handi hark mundian zen ostirale guziez, eritarzunen kanpo-

an, barur egiten zian, Meza saindia enzuten zian eta kolatione arhinbat bere kabinetian eginik, bere auhariaren balioa eman eraziten zian pauper, eta haren auharia balia zian gutiena bigua edo hirur pistola gorririk. Nahi nuke denbora hontako iaun handiek exenplu hontarik bere profetia egin lezaten, eta pobria, baita Iesu Kristen menbria, haien honetarik eta arrandetarik bere partia tira lezan eta goza. Ordian egia lizate S. Leo Aita saindiaren errana: «Fiat refectio pauperis abstinentia ieiunantis».

Estu oraino hanitz denbora Parisen iaun handi batek aktione eder bat eta saildu bat praktikatzen ziala. Iaun hura erregeren gortian zen kalitate eta dignitate handitakoa, zoin komunski deitatzan baitira Franzian «maistre de requestes». Ezkondu izan eta emaztea hilik, alhargun gertatu. Bere buria estatu hartan ikusirik, debotione ukhen zian behar ziala apheztu. Ordena sakratiak harturik eta Meza saindia erranik, mundian zen egun oroz karrosan ioaiten zen Parizeko elizetara konfesional batera, hargana jiten ziren oro kosfesatzera; eta zer ere bilzen baitzian diharu bere kosfesionetan, hura oro

barazkal ondoan bere bortan paubrer berak bere eskuz emaiten zian eta distribuatzen.

Bere adegkidez eta bere domeztikoez egun batez interrogatu izan zen, zeren etzian amoina egiten paubrer lehen bere arrandetarik, eziez kofesionetan bilzen zutian duhurietarik. Arrapostu eman zian, haren arrandak hura lo zantzala jiten zirela eta berak bere tribailluz eta penaz irapaizten zutian honetarik haboro plazer hartzen ziala amoina paubrer egitiaz, eziez bere arrandetarik.

Egiaz, arima debota eta penitenta, iaun handi haren aktionia eta arrapostia biak ederrak ziren eta konforme S. Augustinen sendimendiari, zoiñek baitio: «Ex iustis laboribus eleemosynae faciendte sunt», «amoinak egin behar direla tribaillu iustoez akisitzen diren honetarik», lehen erran dugun bezala; halaber erakustera eman zian iaun handi hark amoinaren moienez bere bekhatiak reparatu nahi zutiala eta linkoaren gratia honak irabazi.

Errumen bertze orduz Kardinal handi eta debot batek hari eman zen aktione eder eta saindu bat egin zian. Bera bizirik zagoela, bere

kofretan zian urhia eta zilharra oro linkoaren amorekatik paubrer eman zian eta distribuatuta, eta hoilla bedera paper zarri kofrekal, zointan beigaudian hitz hoiek eskribaturik: «Dispensit deditque pauperibus», «Eman dutu eta partitu oro paubrer», hoilla paper hurae oro Qaudialarik zerraturik kofretan gillzaren pian. Kardinal debot hura jin zenian hilzera, haren askaziae eta ahaidiak oro jin zirenian haren kofren idekitera eta bisitatzera hura hilez geroz, harriturik eta iziturik oro gelditu ziren, zeren bere esparanza handiae galdurik, ezpaizuten eriden kofre haietan urhieren eta zilharren plazan hoilla bedera paper baizi; eta Kardinal debot eta liberal hark bere tronperia saindiaz eraekustera eman zian lurreko honak etzirela deus zelukoen konparationian; eraekustera eman zian iraekurtu ziala zuhurraren konseillu zuhurra, zoiñek baitio: «Benefac amico ante mortem» (Ecles. 14), «Egin ezak ongi adeskidiari hil baino lehen». Hilzian edo hilez geroz egiten diren ongiak, ongi borxatiak dira, garkoraren pian bertze mundurat ezin eramanez emaiten direnak.

AMOINAREN INDARRA ETA BERTUTIA

Amoinarene indarra eta bertutia ikusi behar dugu gure hirur prinzesen azken konklusioniaren emaitako. Orai erran dutugunez ageri da, amoina zonbat eder eta naitagarri den linkoaren eta gizonen begien aitzinian. Egia haur bera ikusiko duzu jiten diren arrazoiñak eta pensamendiak onsa pezaturik.

Amoinak bertze kalitate eta perfektione ederrren eta handien artian hirur notablerik bera baitan poseditzen ditu: bekatu orotarik eta herio eternaletik delibratzen du eta gratian konserbatzen. Promez hori eman zian ainguriak bi Tobiaz aita-semer: «Eleemosyna ab omni peccato et a morte liberat et non patietur animam ire in tenebras» (Tob.4).

Eztu amoinak botere hori «ex opere operato», bertze elizako sa-kramendik bezala, zeren hori ezpaita porogatzen Eskritura saindiaz, ez eta Elizaren definitioniaz. Ezta oraino porogatzen «per modum dispositionis», «dispositioniaren

bidiaz», kontritioniak eta Inkoaren amorioak gauza ororen gaiñian egiten dian bezala, zeren hori hala baliz, amoina eginik, nehor iustificatu belizate Apostoliaren erranaren kontre: «Si distribuero in cibos pauperum omnes facultates meas, charitaten autem non habuero, nihil mihi prodest», «Neure honak oro emanik ere paubren entertenitzeko eta eztudan karitatia, eztut bate-re profeturik».

Baina amoinak du indar eta bertute hori «ex parte causae», «kausaren aldetik». Amoinaren ama da miserikordia eta miserikordiaren ama da karitatia. Hanbateki amoinak ditu indar horik kausaren aldetik, zoin baita karitatia, eta hark manatzen ditu eta sortzen amoinak. Harganik ditu bere bertutiak eta indarrak. Salamonek hori porogatzen du: «Perde pecuniam propter fratrem et proderit tibi magis quam aurum» (Ec. 29), «Gal ezak eta eman ezak ore diharia ore anaiegatik, eta hark gehiago profeitu emanen drauk, eziez urhiak»,

Amoinak oraino indar hori hartzen du «ex parte effectus», «efektoaren aldetik», zeren paubriak amoina hartzen eta rezebitzen dianian,

mobitzen da eta kumitatzen linkoari othoi egite-
ra, norganik ere rezebitzen baitu amoina, harga-
tik; eta bere orationiaz linkoaganik haren gratia
eta haren bekatien remisionia ardiasten du. Hala
dio zuhurrak: «Conclude eleemosynam in corde
pauperis, haec exorabit te ab omni malo» (Ecle-
si. 26), «Gorda ezazu amoina paubriaren biho-
tzian eta haren orationiak gaix orotarik delibra-
tuko zutu». Paubre miserabliak amoina rezebi-
tzen dianian, hanbat boztario eta plazer bere
amoinan hartzen du, non egiten baitu mila othoi
eta oratione bere ongi egiliagatik, eta obtenitzen
linkoaganik mila benedikzione haren faboretan.
Hori da S. Thomasen eta Balentia doktor (han-
diaren) doktrina ederra.

BI GERTARI

Egun batez Daniel profeta ioan zen errege
Nabukodonozoren edireitera errege haren bera-
ren manux, eta errege hari manu edo konseillu
hon haur eman zian profetak, bere bekatietarik
hobeki ialgiteko eta linkoaren gratiaren ardiaste-

ko: «Consilium meum placeat tibi, et peccata tua eleemosynis redime, et iniquitates tuas misericordiis pauperum, et forsitan delictis tuis ignoscet» (Dan. 4), «Errege handia, ene konseillu hona alde honera rezebi ezazu: zure bekatiak jure amoinez raxeta itzazu eta repara, eta zure inikitatiak paubrer eginen dutuzun miskrikordiez; hala egiten duzularie, agian linkoae zutzatz konpasionen ukhenen dizu».

Arima debota: so egizu amoinaren indarra zonbat handi den. Profeta saildu hark etzian bertze remediorik ordenatu errege bekatore hari amoina eta miserikordia baizi, bere bekatiaren barkamendiaren linkoaganik ardiasteko. «Redimere» erran nahi da gauza baten erostia bere balioaren.

linkoaren kontre zonbat bekatu handirik egin dian nehork konsideratu behar du, eta haien arau egin beza amoina haien erosteko eta reparatzeko. Bekatu handirik egin dianak egin beza amoina handirik haien reparatzeko; eta zeren ezpaitugu segurtanzarik zonbat gure bekatiak handi diren, dugun egin ahal bezanbat amoina

handirik, gure bekatu handien linkoaren aitzinarian erosteko eta raxetatzeko.

Remarkatu behar dugu Daniel profetaren errana: «Consilium meum tibi placeat», «Ene konseillia alde honera har ezazu». Erran nahi du profetak nezesitate eta extremitate handiaz kanpoan, ezki-rela obligatu amoina egitera bekatu mortalen penan, baina solamente «per modum consilii», «Ebanjelioaren konseilluz». Baina nezesitatia handi denian paubriaren aldetik, obligatu gira amoina egitera beharrari bekatu mortalen penan, «per modum praecepti», «Ebanjelioaren manus eta bekatu mortalen penan.

S. Louis Franziako erregiak egun oroz bere mahaiñian hirur paubreri emaiten zian iatera eta edatera, eta bertze paubren nonbre eta kantitate handiri. Edo manuz edo konseilluz, arima debota, dugun egin amoina beharrari. Amoinaren bi manera hurak ongi jin izanen dira, linkoaren amorekatik eginak badira ber.

Egun batez S. Louis errege hura bera interrogatu izan zen, non ziren haren ehizeko horak. Errege estranjer baten anbasadoriaz S. Louisek anbasadore hura eskutik harturik, eraman zian

bere palatioko basakortera eta han hari erakusi ehun bat paubre, aiduru beitzaudian bere barazkariaren; eta erregek erran zian anbasadoriari: «Hoyec dutuçu ene horac eta ene ehicia».

Egiaz, arima debota eta penitenta, errege saindu haren aktionia eta arrapostia ederrak ziren, eta nahi nuke denbora hontan iaun handiek eta aitoren semek, errege saindu haren exenplia bihotzian harturik, bere horetan eta banitatan enplegatzen dutien honak, edo parte hon bat aumens, paubren faboretan enplega bailezate. Enplegu haur ongi jina lizate linkoa baitan eta botere handi luke haien bekatien remisioniaren ardiasteko eta linkoaren gratia honen obtenitzeko.

Amoina, baita prinzesa eder bat eta handi bat, zonbat indar eta bertute dian eta zonbat linkoak maite dutian amoina egiliak eta hastio amoinaren beharrari refusazaliak, bat edo bi istorien moienez ikusiko dugu, arima debota eta penitenta.

HIRU ISTORIA

Ebagrius filosofo paganoa zen eta, Sinesius aphezkupe saindu batek fede honiala konbertiturik, iesan kaukon eta enpruntatu hirur hogeitabi urhe paubrer emaitako, konditionereki bertze mundian filosofo hark ukhenen ziala bere somaren doblia. Hartakoz apezkupe hark eman zaukon promesa bat eta zedula bat bere eskuiaz siñaturik. Denbora laburretan filosofo hura jin izan zen hilzera eta hil baino lehen eman zian kargu exprez bere domestikoer, zedula hura eta promesa haren bi eskuien artian estekaturik, haren gorpitza hoberat eta tonbalat ezar lezaten.

Erran bezala egin. Hirur egunen burian hilez geroz, Evagrius filosofo agertu izan da bisionian eta minzatu Sinesius aphezkupeari gauaz gisa hontan: «Sinesius aphezkupe handia, jin zite ene hobera eta tonbala eta edirenen duzu ene eskuetan zure zedula eta ondarran ene kitanqa zure hitzaren azpian; neure somaren doblia bertze mundian rezebitu dizut linkoaganik; kitatzen zitut iagoitiko z neure soma prestatiaz».

Bisione hura apezkupu saindu hark ukhen zian bezain sarri, bere kleroa eta populia harturik prozesionian, kurutzia aitzinian, ioan zen filosofo haren hobera eta tonbala, eta agerturik hobia, ediren zuten Evagrius hila, hobian iarririk, zedula eskuan, hedatzen zialarik eskuia zedularen apezkupiari emaiteko, eta nehoi ere etzian eman zedula apezkupiari berari baizi, eta zedularen ondarran kitanza zagoen eskiribaturik forma hontan: «Ego Evagrius philosophus tibi sanctissimo Domino Synesio episcopo salutem. Accepi debitum in his litteris manu tua conscriptum, satisfactumque est mihi, et nullum contra te ius habeo propter aurum quod dedi tibi et per te Christo salvatori». (In prato spirituali, cap. 195), «Nik Evagrius filosofo salutaten zitut Sinesius aphezkupu saindia eta deklaratione egiten dut eta aithortzen mundu ororen aitzeinian neure hartziaz pagatu nizala, zoin letra hoietan zure ezkuaz ezkiribatia baitzen. Hartakoz aithortzen dut eta kofesetzen eztudala zure kontra deus ere zuzenik urhe haren respektus, zoin eman baitut zuri eta zure personan Iesu Kristo salbazaliari».

Hilak aphezkupiari bere zedula eskutik esku-
ra rendaturik, hedatu zen berehala bere hobian
eta aphezkupiak bere klero eta populu ororekin
esker alagerak linkoari rendatu, mirakulu handi
haren manifestationiaz amoinaren faboretan.
Arima debota eta penitenta, konsidera ezazu
amoinaren boteria zonbat handi den heben eta
bertze mundian, eta exenplu saindu honzaz zure
profeitia eginik, egizu ongi beharrari. Gutien uste
duzunian zure hona doblaturik emanen drauzu.

Santa Katherina de Siena egun batez othoitu
izan zen paubre batez eman lizon amoina; neze-
sitate handia ziala. Birjinak, baitzen fraide lako-
bien eliza batetan Meipa saildiaren enzuten,
erran zaukon: «Ene gizona, orai presenzian ezti-
zut deus neurekin; ipoaipa ene exera, han ukhe-
nen duzu». Paubriak presatu zian Birjina eta
erran: «Anderia, eztizut aizina zure exera ioaite-
ko; indazu bertan». Birjinak, bere rozarioan bai-
tzian zilharresko kuruxe bat estekaturik, hura
hantik idokirik eman zian paubriari.

Ondoko gauian gure launa agertu zen bisio-
nian birjinari eta hari minzatu, kuruxe hura bera
eskuan edukiten zialarik: «Ene alhaba Katharina,

ezagutzen duzia kuruxe haur, zoin baitzen ornatia eta garnitia perlaz eta harri preziosez?». Birjinak arrapostu eman zian: «Ene launa, bai, ezagutzen dizut, baina eztuzu enia eta ez zuzun gisa hortan ornatia». «Ene alhaba, atzo karitatez eman zanautan eta azken iuiamendian saildu eta sailda ororen aitzinian representatu izanen zazu» (Raymund. a cap. in vita eius. S. Anton. 3. p. hist. cap.14). Bisioia itzalturik, birjinak ezker alagestak linkoari rendatu zutian hunbleki.

Arima debota eta penitenta, so egizu amoinaren indarrak eta bertutiak zenbat gloriosas diren, gure launa agertzen eta jiten denaz geroz amoinaren egiliaren remerziatzera. Paubria obligatzen duzunian, linkoa obligatzen duzu. zure hon emanaren rekompensiaren ardiasteko, non nahi duzu berme hoberik ediren? Eta linkoari nahi ezpazira fidatu, nori nahi zira fidatu? Nola linkoak amoina eta haren egilia, haren amorekatik egiten denian, denbora oroz maitatu baititu eta maitatzen, eta bere rekompensiak haier emaiten edo lurrian edo zelian edo bietan, hala hala amoinaren refusazaliak, dialarik nontik eta ikusten beharraren nezesitatie, denbora oroz hastio

ditu eta punitzen mundu hontan edo bertzian edo bietan rigoroski bere ingratitudea eta gogortarzun handiak.

S. Gregorio, Errumeko Aita saindiak eta Elizako laur doktoretarie batek, paubriak barnen eta kanpoan leku orotan ajutatzen eta sustengatzen zutian egun oroz bere mahaiñian, eta bere konpaiñian zoinbat errumes eta pelerin rezebitzen, eta haien artian zoinbat ainguru, eta batzutan aingurien Erregia tratatzen zian. Hilez geroz ikusirik Sabinian haren suzesora Errumeko kaideran gaixki gobernatzeko zela paubren eretzian, etziala imitatzen haren liberalitatea eta hontarzun paubren faboretan, baina «au contre» abarizias, gogor eta kruel gertatu zela, paubriak mesperexaturik eta abandonaturik, urhez eta zilharres bere kofriak betatzen zutiala, hiruretako aldiaz agertu zen bisionian Sabinian bere suzesorari reproxatu paubren kontre enplegatzen zian abarizia eta krueltarzun horriblia.

Ikusirik enfin etzela korrijitzen, baina haren malezia oren oroz goiti zoela, laurgarrenian agertu da eta eman kolpu bat eskuaz burian Sabiniani eta mehaxu handirik egin bere abari-

zias eta paubrer amoina egin gabiaz, halako maneraz non linkoaren permisione iusto batez kolpu haren, minetik eta doloretik hil izan baitzen urthe bat eta bost hilabete Pontifikatian egonik.

Arima debota eta penitenta, ezta behar trufatu linkoaz ez eta paubrez; haren kerela hartzen du linkoak eta nork ere gaixki tratatzen baititu paubriak, haien kontre mendekatzen da furioski, Sabinian Aita saindu gogor haren kontre egin zian bezala. Halako malhurik hel eztatizun edo handiagorik, ziren bethiere liberal eta miserikordioz paubretrat eta linkoa izanen duzu hala-hala zure behar ordian oro hon, oro bihoz bera, oro liberal eta oro miserikordioz zugarat.

EHUNETIK BAT

Ezar niro eta allega paper hontan ehun exenplu, behar baliz, porogatzeko gure linkoak maite dutiala amoina egiliak eta hastio dutiala eta punitzen amoinaren refusazaliak. Exenplu bakoiz bat nahidut oraino allegatu, neure prinzesa ede-

rrari eta maitagarriari neure azken adioaren erraiteko.

Ioanes Ierusalemeko apezkupa hanbat abarizioz eta gogor gertatu zen dignitate hartara iganeraz geroz, nola baitzen lehen noble, liberal eta bihoz bera. Komunski hala helzen da, zeren proberbio zaharrak dioen bezala «honoribus mutant mores» (In vita S. Epiphanii), «Ohoriak kanbiantzen baitu umorra». Deusek ere ezin asetzen zian prelat haren ambizioa eta desirkundia. Haren pentsamendiak oro ziren urhia urhen gainen, zilharra zilharren gainen ezarririk, thresor handirik egitia eta bilzia.

S. Epifanio iaunak, zoin baitzen Konstantzia hiriko apezkupu, enzunik gizon haren gogortarazuna mehaxatu zian eta exortatu paubrer amoina egitera, baina inutila zen haren exhortationia eta frutu gabia, zeren prelat harritu hark guxiago estimatzen baitzian urhia, eziez amoina. Arte hartan paubreak baitziren miseria handitan, S. Epifaniok iesan du eta enpruntatu fineziaz harritu hari soma handi bat eta notable bat, eta berehala barreiatu eta eman paubrer.

Pagiaren termaiña akabatu denian, lonesek presatzen du Epifanio pagua dezan eta renda bere soma lehen bai lehen. Zorduna defendiatzen da eta erraiten eztiala nontik, paubriak eraman diala soma. Hartzedunek dio ezarriko diala iustitian, pagua dezan. Ordian Epifaniok thu egin du begitartera loanesi, Zoin bere bi begietako argia galdurik eta utsuturik, lurrera erori izan baitzen eta, bere falta ezaguturik, othoitu humbleki Epifanio, remeti lizon bista.

Epifaniok, lonbatere iniurio eta afruntu handirik rezebitu baitzian harganik, bere eskuak haren burian pausaturik, ezkuineko begia remetitu zeron. Begietarik bata ardiatsi zianian loanesek, suplikatu zian gizon saindu hura bertzia remeti lizon, baitzen ezkerrekoa, baina refusatu zian eta erran: «Mundia mundu deno, begi bakoitz izanen zira punitione iustotan, porogatzeko zure abarizia uzurri bat dela eta zuk paubrer egin duzun damia eta afrontia bekatu enorme bat dela. Egizu penitencia eta zure abarizia gaixtoa kitaturik, zure thresorak distribua etzazu linkoaren paubrer», Arima debota eta penitenta, haur dela gure azken prinzesa, amoina. Honen eder-

tarzuna eta boteriak ikusirik eta konsideraturik, ohora ezazu eta perexa. Egizu gortia egun oroz, aumens ahal bezain ardura, hirur prinzesa eder hoier: orationiari, barurari eta amoinari; bekatian bazira, hantik bertan ialgiko zira, hirur prinzesa eder hoiek enplega baditzazu linkoari zure faboretan.

AZKEN ERREGUAK

Arima debota, penitenta eta salbatu nahi zirena: egizu Apelles, antikitatian izan den pintari famos eta handi hark bezala. Hark erraiten zian: «Nulla dies sine linea», etziala igaraiten egunik batere iagoitik bere bizian, zoinbat luma ukaldi eman gabe bere artian bere obrari. zuk ere egiozu bere forman Iesu Kristen eskolan eta haren relijionian. Egizu egun oroz gortia hirur prinzesa horier, aumens borondatez edo obraz, ahal dezazun bezala: «Nulla dies sine linea». Moien harzatz Iesu Kristen dizipulu leial eta konplitu bat izanen zira; zure etsai bisible eta inbisible oro garaituko dituzu eta, inferniaren despit

eta demonio ororen despit, zeluko resuma zure izanen duzu.

Arima debota eta penitenta, egiozu Vespasian enperadoriak bezala. Hark erraiten zian: «Oportet imperatorem stantem mori», «Prinze batek eta enperadore batek zuti zagoela eta ez iarririk hil behar ziala». Zuk ere egizu barur, oratione eta amoina linkoaren eskolan. Zaude zuti, sentinelan, iratzarririk etsaien kontre Iesu Kristin faboretan. Ordian ilanen zira errege, prinze eta enperadore lurrian eta zelian.

Egizu, arima debota eta penitenta, Titus enperadore handi hark bezala. Prinze hura hanbat zen liberal eta jeneros, non igaraiten zianian egun bat bere adeskider zerbait ongi edo fabore egin gaberik, arratsian ohorat ioiaitan bere adeskider oihi eta plintu egiten baitzian: «Amici, diem perdidimus», «Neure adeskidiak, eguna galdu dugu». Kuk ere, arima penitenta, egun bat igaren dugunian, edo oratione edo barur edo amoina edo zerbait obra hon linkoaren zerbutzu saindian egin gaberik, arratsian ohorakoan linkoari errazu: «Diem perdididi», «linko adorabilia, egun neure eguna galdu dizut, kuri zerbutzurik

rendatu gaberik; egidazu gratia eta misericordia neure kulpa eta falta handiez; «Diem perdidit», eguna galdu dizut».

Arima penitenta eta debota, egizu Santa Teresa andere serora espaiñola hark beqala. Andere hark, noiz ere ezpaitzian aski dolore eta tormenta sofritzen linkoagatik, usatu zen bezala, edo zerbait solaiamendu bere penetan senditzen baitzian, bere linkoari minzo zen gisa hontan: «Domine, aut pati aut mori», «launa, edo hil edo sofri; edo sofri edo hil». Andere sainda hura nahiago zen hil, eziez bizi, zerbait pena eta dolore linkoagatik lurrian sofritu gaberik egun oroz. zuk ere, arima debota, errazu linkoari: «jauna, edo hil nadin edo obra honik egun oroz zugatik egin dezadan: pati aut mori».

Egizu, arima penitenta, Louis hameka izen hartako garrenaren pian aitoren seme batek egi-ten zian bezala. laun hura interrogatu izan zen egun batez, nola errege haren pian ordintu eta xuritu izan zen. Errapostu eman zian: «Iniurias tolerando», «bere denbora luzia igaren ziala afrontien eta iniurioen sofritzen». Nahi zireia, arima penitenta, lurrian bizi eta zahartu linkoa-

ren zerbutzian, eta eternitatian linkoarekin bizi huros? Egizu utsiarena eta gorrarena. Lurrian egizu obra onik, egizu barur, oratione eta amoina; lurrian biziko zira eta zahartuko linkoaren kortisan fidela bezala eta zelian haren kortisan eternas bat bei;ala.

Enfin, arima penitenta, orhit zite hirur etsai duzula, deabria, mundia eta haragia. Hirur etsai horien kontre arma zite ordu honez hirur Prinzeza eder eta noble hoiez: orationiaz, baruraz eta amoinaz. Hekila batian linkoa izanen duzu zure alde, zuk linkoaren gratiari eta haren bokatione saindiari emanen duzun kooperazione eta konsendimendu saindia ere bai. Hanbateki izanen zirate bost hiruren kontre. Bosten kontre hirurek zer erranen dute, zer eginen dute?

Enplega ezazu oraino apure faboretan haien kontre Ama Birjina gloriosaren faboria, kredita eta interzesionia, zoin baita «reffugium peccatorum», «bekatoren sustengia». Iesu Kristo, haren seme adorabliaren eretzian, iunkta eopazu Birjina gloriosaren kreditari zeluko saindu eta sainda ororen kredita. Ordian ikusiko duzu ene hirur Prinzesen kredita zoinbat handi den zelian; eta

zure herioaren orena jin dadinian, hirur Prinzesa haiek aingurien eta gizonen Erregiaganik ardia-tsiko dute zure arimaren gratia lurrian eta haren gloria zelian. Hara, othoi, hel eta gida gitzala Aitak, Semiak eta Espiritu Saindiak.

FINIS CORONAT OPUS

AD AUCTOREM HYMNUS

Haec tota plebs Cantabrica
Simul et laburdunica
Reddite laudes Domino
Tartasio doctissimo.

Hic reginaruni libellus
Ab illo in lucem editus
Praestabit vobis medium
Ut vivatis in saeculum.

Pater aeterni saeculi
Exaudi lectores libri;
Sancta Mater pulcherrima
Pro legentibus exora.

IACOBUS DE CASEDEVANT
vicarius de Gestas.

SONNET A L'AUTHEUR

Tartas, nous voyons bien par tes rares escrits,
Que tu traites souvent avec-que les Princesses
Qu'elles versent sur toy leurs plus tendres caresses
Et que de leur beauté tu te trouves espris.

Nous voyons que tu veux donner à ton Pays
Bonne part des douceurs, des fruicts et des richesses
Que ton ame a receu des mains des trois Deesses
Que ton livre depeint et qui nous ont ravis.

Ton pinceau a donné tant de grace à ces Dames
Que nous en ressentons desia les belles flammes
Vivement embrasez de leur divin amour.

Par ton aumosne ainsi, par ton ieune et priere
Reduits apparament à l'extreme misere,
Nous irons en effet à la celeste Cour.

D'ABBADIE COSTERE

*Conseilleur et Procureur
du Roy au Pays de Soule.*

AUTHORARI

Bizi bis haunits Tartas
Badoa bethi gora
Gure linkua hartzaz
Da zerbützatzen ora.

Haur zürtza Prinzeseekin
Asenblatü d'Arua
Guazan oro hekin
Dügün segi linkoa.

Hitz hurak bihotzian
Eta obras konplitürik
Sar gitian zelüian
Bexatüs xahatürik.
Hala bis.

IUAN DE BAGUARIE,
Susmioko eta Kanbloko Erretora.